- Auzoko gune berdeak eta haien arteko lotura zaintzea, lotuta Ttorre-azoko gunea eta Elozegi parkea, aisialdirako eta kirolerako aukera gisa.
- Berdetasuna eta aisia uztartzen dituzten baratze ekologikoak egiteko gunea mantentzea.

7- Azpiegiturak eraberritzea eta hobetzea.

Horretarako, honako hauek lortu nahi dira:

- Erreka ingurumen-aldeak leheneratzea.
- Bide publikoak leheneratzea.
- Ur zikinak kolektorerara bideratzea.
- Egungo aparkalekua mantentzea, berriro diseinatuta.
- Bidegorri bat eraikitzea eta egungo sarera lotzea hiri-eremuan.

Beheko planoak jasotzen ditu hasieratik finkatutako oinarritzko irizpideak:




II.4_ PARTE HARTZE PROZESUA. DEBOLUZIO TAILERRA


Parte hartze prozesuko 2. faseko deboluzio tailerrean aurkeztutako alternatiben artean, besteak beste, bi aukera hauek daude, ondoren aurrerakin-agiriak jasoko dituenak:



1 AUKERA



2 AUKERA



Deboluzio tailerretik eratorritako ideiak hauek dira:

ETXEBIZITZA EREMUARI BURUZKO LABURPENA

↑ Herritarrentzat garrantzitsua da **ahalik eta eraikin gehien mantentzea**, eta **behar-beharrezkoak soilik eraistea**: aukeratuena izan den aukera eraikin gehien mantentzen zituena. Eraikin gehien eraisten ziren aukeran, horrelako aipatu zituzten "Se derriban demasiados edificios. ¿Falta de respeto con la arquitectura historicista? ¿Beste eraikinak?".

↑ Auzoaren izaera mantendu nahi dute, auzo ja eta lasai bat izaten jarraitu.

↑ **Irualdeta: Aukeretan ez da mantentzen eta mantentzeko eskaera egiten dute 3 taldek (% 6**

↑ **Seat: 2** taldek eraistearen alde egiten dute, beste talde batek bertan dauden aparkaleku itxi mantentzearen alde egiten du.

Elosegi parkea:

↑ Elosegi parkea trenbide azpiko pasabide berriarekin lotzea proposatzen dute.

↓ Gaur egungo sarreraren zabalera nahikoa ir dute, ez dute eraikinak eraitsiz sarrera 4 metri zabaltzerik nahi.

↑ Garrantzia gutxiago eta mantenu hobeak bel du.

Mantenuaren inguruko iruzkin asko egir dira.

↑ Argiteria, eraikinen irisgarritasuna, zuhaitze birlandaketa, garraio publikoa, berdeguneak, plazak...

Eraikuntza eta antolaketa berria

↑ Eraikin berriaren **eskala egungoen antzekoa** izatea eta gaur egungo eraikinak **errespetatzea** (altuera, etxeen arteko distantz eskatzen dute: Eraikin berriak kaleari fronte bat ematea proposatzen dute, alineazioa jarraituz.

↓ **Etxebizitza kopurua ere, antzekoa** izan behar litzatekeela.

↑ Gune guztia **oinezko-gune** bihurtzea proposatzen da.

↑ Azken hamarkadetan ordenazioz kanpo egon direlako etxebizitzak orain berritzaiek izango dute kostuaz ohartuta, bi aukera proposatzen dituzte: -"Karga" gehiago jarri iada auzoan ondare eraikia zaharberritu ahal izan dadin. -Taldea bati, kostua gehiegizkoa izango delakoan, realojoak nahiago dituzte.

↑ Udalaren antolamendu-irizpideekin bat egiten du.

↑ Udalaren antolamendu-irizpideekin integratzeko aukera

↓ Ez du bat egiten Udalaren antolamendu-irizpideekin.



Mugikortasuna	Landa gunera trantsizioa eta elkarguneak	Eraikinak mantendu ala bota, ekipamenduak	Erabilera nahasketak	Etxebizitzak
* ↑ Auzoa ahalik eta oinezkoena. * ↑ Bidegorria: oinezkoengandik gertu, bide historikotik. Bizikleta aparkalekuak behar dira. * ↓ Garraio publikoa: Tren geltokiarekin lotura zuzena auzotik. Hiribusa auzora sartu ardatz nagusitik eta garraio publikoa bermatu egunero. Paradak errepide nagusian. * ↑ Autoaren ibilbideak: Sarrera-irteerak gaurkoak eta gaurko errepidetik. Etxebizitza guneetik ahalik eta urrunen. * ↓ Aparkaleku disuasorioak auzotik kanpora (ere) kokatzea proposatzen da. Auzokoak, auzoaren sarreratik gertu, aparkaleku eraikin batean solairu gutxi badira, ferialekuan edota jarraian.	* ↓ Antzinako bidea berreskuratzea. oinezko eta bizikletarako egokituta, ↓ auzo eta landa-lurraren muga izan daiteke. * ↓ Antzinako bidetik landa gunera dauden baratzak babestea eta eremu horretan ez eraikitzea. * ↑ Trantsizioa: Ferialekuaren aldera hiri kale izaera, etxebizitzaren inguruan oinezko bide berdeak eta eraikinak berdegunean txertaturik. * ↑ Bi tunelak juntatuz gero: auzoko eta Elozegi parkeko oinezko sarrera zabala eta berdea. * ↑ Zuberoa ondoko parkea mantentzea. * ↑ Auzo berrian plaza bat, arkupe eta hiri altzariak dituen.	* ↓ Bonberenea: %70-a mantentzearen alde eta %30-a lekuz aldatzearen alde. Gehienak eraikina zaharberritzearen eta egokitzearen aldekoak. * ↓ Peugeot eta ondoan dagoen etxebizitza mantentzea ere aipatu da. * ↑ Ferialekua: Aparkalekua, kirol ekintzak eta kirolerako aldagelak, komunak... * ↑ Box.a sormen zentruaren erabilera auzoan mantentzeko aldekoak. etxebizitzaren behe solairuetan.	* ↑ Ekipamendu berriak: Kirol ekipamendu txiki bat auzo elkarte berri bat, museo. * ↑ Zerbitzuak: Komertzioak (farmazia, okindegia, supermerkatua), autobus paradak, haurren parkea, bidegorria eta bizikleta aparkalekuak... gertu eta etxebizitzaren behe solairuetan. * ↑ Herri komunikabideak auzoan gelditzea.	* ↓ 600 etxebizitza gehiago iruditzen zaizkigu, 300 etxebizitza egokiagoak. * ↓ Eraikigarritasun minimora jotzea. * ↓ Altuerak: Orokorrean 4 alturakoak, Zuberoa Auzunearen antzekoak. ↓ Altuera ezberdinak: Altuagoak Ferialekuaren aldera eta auzoaren erdian, eta Zuberoa eta mendi aldera baxuagoak. * ↓ Erregimena: Babestuak eta alokairuan gehienekoak. * ↑ Tipologia aniztasuna, balkoidun etxebizitzak eta sabai altuak.

II.5_ AURRERAKIN-AGIRIAK honako irizpide eta helburu orokorrak hartzen ditu:

- San Esteban auzoko **egungo bizitegi-egitura finkatzea** proposatzen da, antolamenduarekin bat ez datozen eraikinak ordeztuz, auzoaren barruan eta hiri-fatxadaren aurrealdean espazio libreak eta zuzkidurak lortzearekin batera eta San Juan kaleko espazio publikoa ordezkatzuz.
- **Anbulatorioaren eta Ferialaren jarraipen gisa proposatutako hirugarren sektoreko ekipamendu, zuzkidura eta erabilera berrien kokapen perimetrala** proposatzen da, trenbideri erantsita eta industrialdearen iparraldeko fatxadan, alde batetik, tren-jarduerarekin "koltxoi akustikoaren" efektua lortzeko, eta, bestetik, gainerako hiri-bilbearekiko lotura eta irisgarritasun azkarra lortzeko, sistema orokorrak diren aldetik.
- **San Juan kaleko bide-sarearen egungo trazadura aldatzea** proposatzen da, bateriako aparkaleku publikoak (140 plaza), lurpeko garaje pribatuetarako sarbideak eta disuasio-aparkalekuak (300 plazatik gorakoa) eraikitzeko sarbide zuzena ezarri ahal izateko.
- **Bizitegi-antolamendua, gutxi gorabehera 45.000 m2-ko hirigintza-erakigarritasunekoa (450 etxebizitza),** hego-ekialdetik ipar-mendebaldera doan

ardatzean kokatzen da, oinezkoentzako bulebarraren inguruan. Bloke isolatuak proposatu dira, profil desberdinekoak, eguzkiztapena eta aurrez aurre ez dauden ikuspegiak izan ditzaten. Oinezkoentzako bulebarrak Zuberoako blokeen arteko egungo plazatxoaren errekaren beste aldeko muturrean aurreikusitako ekipamendu soziokulturalarekin lotzen du aukera batean. Eta bestean, ekipamendua ardatz horren erdialdean kokatzea proposatzen da.

Antolamenduak Ttorre errekaren inguruko baserri-multzoa eta San Esteban 24. zenbakiko eraikin isolatua (Hirualdeta) integratu nahi ditu.

Bestalde, **espazio libre hauek egituratzen** dira:

- Bi antolamendu aukeretan **bi plaza publiko** proposatzen dira. Bata, Zuberoa eraikin multzoaren eta Hirualdeta eraikinaren inguruan; eta, bestea, ekipamendu publikoaren inguruan.
- **Espazio libreak eta berdeguneak** ere, ekipamenduen antzera, **modu jarraian proposatzen dira**. Gaur egungo erreka balioan jartzen da eta berdegune lineal bat proposatzen da Ttorre errekatik Elozegi parkeraino.
- **Merkataritza-erabilerak eta hirugarren sektorekoak** proposatzen dira, San Juan etorbide berriaren eta sortzen den oinezkoentzako bulebarraren arteko eraikinen lehen ilararen beheko solairuetan. Bigarren ilarako eraikinetako behe solairuetan, berriz, etxebizitza erabilera proposatzen da.
- **Gaur egungo ekipamenduak handitzea eta berriak sortzea** proposatzen da: ferialekua birgaitzea, alboan aparkaleku eraikin bat eraikitzea eta ekipamendu sozio-kultural bat auzoan kokatzea proposatzen da, besteak beste.

Beraz, aurrerakinean jasotakoa bat dator udalak finkatutako irizpideekin.

II.6_ EKARPENEN INGURUKO AZTERKETA:

Aurrerakina jendaurrean egondako epealdian honako lau iradokizunak jaso dira:

- **ADIF:** Honakoa eskatzen du:
 - Tren-azpiegitura kokatutako partzela eremuaren mugaketatik kanpo uztea, eta, azpiegiturak, tren-sistema orokorra kalifikazioa izaten jarraitzea.
 - Antolamendu berriko eraikinen lerroakadurak errespetatu beharko dute trenbide-legerian ezarritako eraikitze muga-lerroa.
 - HAPOn aldaketaren dokumentazioan txertatuko den azterlan akustikoak barne hartzea indarreko legeriak zehaztutako bibrazio-mailaren azterketa.
 - Dokumentazioan ADIFen baimena eskatzeko beharra aipatu beharko da trenbidearen eragin-eremuetan egin beharreko obra eta jarduketetarako.
- **J.A.G.:** Honakoa eskatzen du:
 - Elozegi parkeko sarrera San Esteban parkera lekualdatzea egungoa baliogabetuta.

- Hobetzea San Esteban parketik mendira doan bide publikoa, oso egoera txarrean baitago.
- Bonberenea birkokatzea, eragiten dituen zarata eta eragozpenengatik, etorkizuneko etxebizitzetatik ahalik eta gehien aldenduta.
- **ANDER AUZMENDI PEREZ DE LAZARRAGAK** Honakoa dio:
Bonberenea eraikina mantentzea eskatzen du, argudiatuta, pisu handiko kultura-ekipamendua dela, ez bakarrik Tolosa mailan. Eskatzen diote udalari eraikina mantentzearen aldeko erabaki irmoa hartzea, ulertuta Bonberenea ondarearen parte dela.
- **MARIA GURRUCHAGA INSAUSTI ETA BESTE 5 ARKITEKTOEK:** Honakoa diote:
Edozein hazkuntza planteatu aurretik, azterketa sakonago bat egin beharko litzatekeela, aztertuta zein den dagoeneko eraikitako etxebizitza kopuruaren benetako ahalmena. Hori egin gabe, nekez jakin daitekeela etxebizitza berriak eraikitzeke benetako beharra.

Bestalde, gehiegizkoa iruditzen zaie HAPOak San Esteban esparruari ezarritako 1011 etxebizitzako eraikigarritasuna; eta, aurrerakinean ez dela behar bezala arrazoitu eraikigarritasunaren murrizketa: hain zuzen ere, aurreikusitako 1011 etxebizitzatik 450 etxebizitzetara.

Halaber, San Esteban auzoan proposatutako antolamenduak ez duela errespetatzen aurrerakinak hitzez zehaztutako xedea: antolamendu berriari ekiteko garaian kontuan hartzea auzoaren berezko izaera; hain zuzen ere, hiri-gunea eta landa-eremuaren arteko ingurua. Diote, ezinezkoa dela auzoak berezko izaerari eustea 8 solairuko eraikinak proiektatuta eta egungo bizilagunen kopurua boskoiztuta.

Aurrerakineko honako puntu hauek aipatzen dituzte:

- **Eraikigarritasuna:** Gehiegizkoa iruditzen zaie esparruari esleitutako eraikigarritasuna. Diotenez, esparruak 8 Ha. dituen arren, eraikin berriak kokatzeko, soilik, 3 hektareako azalera du. Horregatik, 450 etxebizitza eraiki ordez, gehienez, 360 eraikitzea proposatu dute.
- **Etxebizitzen tipologia:** Proposatutako eraikinek ez dute betetzen bizigarritasun baldintzei buruzko 80/2022 dekretuak ezarritakoa. Horregatik, proposatzen dute eraikinetako etxebizitzak alderik aldekoak izatea. Tamainari dagokionez, etxebizitza txikiagoak planteatu beharko liratekeela, 70 eta 85 m² bitarteko batez besteko azalera eraikiarekin.
- **Torre eta Elozegi parkea:** Torre erreka toaren ibilbidea berreskuratzea, batetik; eta, bestetik, Elozegi parkea, mendiaren jarraipena dela ulertuta, irisgarritasuna bermatzeko ahaleginak alde batera uztea, eta soilik hobetzea parkerako sarrerak.



- Ttorre eta San Frantzisko komentuarien arteko **bide historikoa** balioan jartzea: paisaiaren elementu egituratzailea izan zen.
- **Bonberenea** dagoen tokian mantentzea, auzoko kultur-ekipamendu hau ezinbesteko kultur mintegia delako, oso preziatua, ez bakarri herri mailan, baita nazioarteko mailan ere.
- **Ferialekua** botatzea proposatzen dute, argudiatuta, besteak beste, eraikina mantentzeak garapen berriaren kokapena urruntzea ekarriko duela, eta, ondorioz, herriarekiko loturaren ahultzea. Ferialekuaren ordean, etxebizitzak kokatzea proposatzen dute, eta, bidez batez, soilik okupatzea behar-beharrezkoak diren eremu naturalak.
- **Aparkalekuei dagokionez**, diote, kalitate txikiagoko lursailean kokatu beharko liratekeela: erreka eta industria pabilioien arteko eremuan, adibidez. Halaber, planteatzen dute kentzea San Juan kalean proposatutako lur azaleko aparkalekuak eta horiek sartzea aparkaleku eraikinean. Bukatzeko, iradokitzen dute etxebizitzei lotutako aparkalekuak, Zuberoa-San Juan eraikinei dagokienak barne, sotoan jartzea eta horien antolamendua ahalik eta bilduena izatea, ahal den gutxien baldintzatzeke lur azalean landatuko diren zuhaitzen kokapena.
- **Hiru Aldeta eta Etxe-alai** eraikinak botatzea proposatzen dute, lehengoak, arkitektura aldetik ez duelako inolako interesik, eta bigarrena mantentzeak oztopatuko lukeelako Ttorreko erreka eta berreskuratzea eta balioan jartzea.

II.6.1_ Udalaren azterketa aurkeztutako ekarpenen inguruan:

• ADIF:

ADIFek aipatutako puntu guztiak aintzat hartuko dira ondoren idatzi beharreko dokumentuan.

• J.A.G.:

Batetik, aurrerakinak hartzen du aukeren artean Elozegi parkerako sarbide bat San Esteban parketik, eta beste bat San Juan kaletik. Bestetik, San Esteban parketik mendira doan bidea konpontzeari buruz, esparrutik kanpo geratzen da eta ez da hemen aztertu beharrekoa. Azkenik, Bonberenearen lekualdatze proposamenari dagokionez, aurrerakinak proposamenen artean jasotzen da (ikus 3.3, 3.4, 4.1 eta 4.2 planoak). Hala ere, haren behin-betiko kokapena zein izango den hurrengo pausuan zehaztuko da.

• ANDER AUZMENDI PEREZ DE LAZARRAGA:

Udalak hasieratik zehaztutako irizpidea da etorkizuneko auzorako eta Tolosarako zentzua duten eraikinen berrerrabilpena bultzatzea, beti ere auzoaren antolaketa nabarmen oztopatuko ez badu.

Nolanahi ere, arestian esan bezala, hurrengo pausuan zehaztuko da Bonberenearen behin-betiko kokapena.

· **MARIA GURRUCHAGA INSAUSTI ETA BESTE 5 ARKITEKTO:**

Etxebizitza kopuruaren benetako ahalmenari buruzko azterketa sakonago bat egiteari buruz, honakoa esan beharra dago:

Batetik, LAGak zehazten du zein den herri bakoitzeko etxebizitza-beharra, eta bizitegi-kuantifikazioan hartzen ditu barne hutsak dauden etxebizitzak.

Bestetik, Tolosako Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialak (LPP) San Esteban esparrua bizitegi-garapen berrirako izaera estrategikoa duen eremutat hartzen du, dentsitate altuko garapen bat aurreikusita. Horrez gain, LPPk dio, Olarrain eta Amarotzeko esparruekin batera, San Estebanekoa dela babes publikoko etxebizitzak garatzeko lurzoru erreserba garrantzitsua.

Auzoaren izaera mantentzeko garapen berriaren etxebizitza kopurua jaisteari buruz, honakoa:

2009an onartutako Plan Orokorrak 1011 etxebizitza aurreikusten ditu ($1'8 \text{ m}^2(\text{t})/\text{m}^2(\text{s})$ -ko eraikigarritasuna) eremu honetarako, aldiz, HAPO aldaketarako 450 etxebizitza proposatu dira.

2024ko martxoko Hasierako Dokumentu Estrategikoan azaltzen denez, azken kopuru hori prozesu baten ondoriozkoa da. Izan ere, 2014ko parte hartze prozesutik eratorritako proposamena izan zen etxebizitza kopurua 150era jaistea ($0'27 \text{ m}^2(\text{t})/\text{m}^2(\text{s})$ -ko eraikigarritasuna). Baina, lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 legeak ezartzen du, 77. artikuluan, zein izan behar den gehieneko eta gutxieneko eraikigarritasuna; hiri lurzoruetan, gutxienez, $0'4 \text{ m}^2(\text{t})/\text{m}^2(\text{s})$ izanik, eta, gehienez, $2'3 \text{ m}^2(\text{t})/\text{m}^2(\text{s})$. Hori dela eta, San Esteban esparruaren antolaketarako, $0'4$ - $2'3$ tarte horretan sartuko den etxebizitza kopurua proposatu beharko da.

Horren ildotik, HAPO aldaketa puntualaren prozedurarekin batera doan parte hartze prozesuan honako alternatiba hauek proposatu ziren: 2.1, 2.2, 2.3 eta 2.4 alternatibak, alde batetik, eta, bestetik, 3.1 eta 3.2 alternatibak. Lehenengo lau aukeren eraikigarritasuna $1'45 \text{ m}^2(\text{t})/\text{m}^2(\text{s})$ -ekoa zen, 650 etxebizitza planteatuta; azken biek, aldiz, 450 etxebizitza planteatzen zituzten, hain zuzen ere, 2023ko ekainean gobernu aldaketa etorri zenean erabakitako kopurua. Parte hartze prozesuko 4. bileran, deboluzio tailerrean, azken bi alternatibek hartu zuten pisu handiagoa.

Ekarpenean eskatutako 360 etxebizitzaren eraikigarritasuna lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 legeak ezarritako gutxieneko $0'4$ eta gehieneko $2'3$ tartearen

barruan egongo liratekeen arren, $0'67 \text{ m}^2(\text{t})/\text{m}^2(\text{s})$ -ko eraikigarritasunarekin, kontuan hartu behar da, baita, lege bereko beste zehaztapen hau: gutxienez, etxebizitzaren %40 babestuak izan behar dira.

Hori guztia aintzat hartuta, eta ekonomikoki bideragarria izan behar denez, HAPOn aldaketa puntuala idazteko egokitzat jotzen da San Esteban auzoaren antolamendurako 450 etxebizitza kopurua, $0'84 \text{ m}^2(\text{t})/\text{m}^2(\text{s})$ -ko eraikigarritasuna izango lukeena.

Etxebizitzaren tipologiari buruz egindako ekarpenari dagokionez, bizigarritasun baldintzei buruzko 80/2022 dekretuak dioena betetzeko, 3 logelako etxebizitzek $105/110 \text{ m}^2(\text{t})$ bitarteko azalera izan beharko lukete; erabilera komuneko azalerak ere sartzan direlako. Arkitektoek proposatutako 70-85 $\text{m}^2(\text{t})$ -ko azalera 1 edo 2 logelako etxebizitzetara legokie.

Dena den, Aurrerakin faseari ez dagokio etxebizitzaren tipologia zehaztea. Gai hori, hasierako onespenerako dokumentuan landuko da.

Torre eta Elozegi parkearen inguruan egindako ekarpenari erantzunez, orain arte ez da planteatu Torre errektorearen jatorrizko ibilgua berreskuratzea; bai, ordea, egungo ibilgua mantentzea ertzak berreskuratuta. Errekastoa balioan jartzea eta antolamenduan integratzea hasiera-hasieratik hartu izan da irizpidetzat.

Bestalde, Elozegi parkerako irisgarritasuna hobetzea parte hartze prozesuko alternatiba guztietan jasotzen da.

Bide historikoa balioan jartzeko egindako ekarpenarekin bat egiten du udalak eta, ahal den neurrian, haren trazadura errespetatzen saiatuko da. Hala ere, aurrerakinako aukeretan kontuan hartu da bide historikoaren trazadura, eta ez da eraikinik kokatu bide horren espazioan.

Bonberenea dagoen tokian mantentzea edo lekualdatzea hurrengo pausuan zehaztuko da. Dena den, modu batera edo bestera, ekipamendua esparruaren barruan antolatuko da.

Ferialekua eta aparkalekuak: Ferialekuaren ordean etxebizitzak kokatzea baztatu egin zen Zarata legeagatik. Udalaren hasierako irizpidea izan da ferialekua birgaitzea eta alboan aparkaleku eraikin bat eraikitzea "koltxoi akustiko" gisa. Bestalde, Mugikortasun Planak jasotzen du udal aparkalekuaren kokapena; hain zuzen ere, ferialaren ondoan.

Lur azaleko aparkalekuak aparkaleku eraikinean sartzeari buruzko ekarpena aintzat hartuko da. Aurrerakinaren kontuan hartu da zein den auzoaren eta herriaren beharra aparkalekuei dagokionez, hala ere, orain ez dagokio zehaztea horien antolamendua: hurrengo pausuan zehaztuko da, beraz.

Bestalde, onargarria iruditzen zaio udalari honako ekarpena: etxebizitzetara lotutako aparkalekuak, Zuberoa-San Juan eraikinei dagozkienak barne, sotoan jartzea eta horien antolamendua ahalik eta bilduena izatea, ahal den gutxien baldintzatzekeko lur azalean landatuko diren zuhaitzen kokapena.

Hiru Aldeta eta Etxe-alai eraikinak botatzeko iradokizunari buruz, bizilagunen eskaerari kasu eginez baztertu egin zen ideia hori.

HIRUGARRENA.- Aurreko atalean aztertutakoa kontuan hartuta UDALAK ONARTZEKO PROPOSATUTAKO IRIZPIDE ETA HELBURU OROKORRAK:

Ardatz hartuta hasierako 4 ideiak eta kontuan hartuta azken lau ekarpenak, honakoak dira San Esteban auzoa antolatzeke Tolosako Udalak onartzeke proposatutako irizpide eta helburu orokorrak,

- San Esteban auzoko **egungo bizitegi-egitura finkatzea**, Hiru Aldeta eta Etxe-alai barne, eta Ttorre errearen inguruko baserri-multzoa baita.
- Ahal den neurrian, etorkizuneko auzorako eta tolosarako zentzua duten **eraikinen berrerabilpena bultzatzea**, beti ere auzoaren antolaketa nabarmen oztopatuko ez badu.
- **Garapen ekonomikorako aukerak eskainiko ditu** etorkizuneko auzoak. Aukera horiek euskara, kultura eta sormenari lotutakoak izan daitezke: herriaren indarguneak, hain zuzen ere.
- **Erabilera nahastura**: merkataritza-erabilerak eta hirugarren sektorekoak proposatzen dira, San Juan etorbide berriaren eta sortzen den oinezkoentzako bulebarraren arteko eraikinen lehen ilararen beheko solairuetan. Bigarren ilarako eraikinetako behe solairuetan, berriz, etxebizitza erabilera proposatzen da.
- **Ferialakua mantentzea** eta birgaitzea.
- **Anbulatorioaren eta Ferialaren jarraipen gisa proposatutako hirugarren sektoreko ekipamendu, zuzkidura eta erabilera berrien kokapen perimetrala**, "koltxoi akustikoaren" efektua lortzeko, eta gainerako hiri-bilbearekiko lotura eta irisgarritasun azkarra lortzeko, sistema orokorrak diren aldetik: aparkaleku eraikin bat eraikitzea proposatzen da.
- **San Juan kaleko bide-sarearen egungo trazadura aldatzea**, bateriako aparkaleku publikoak (140 plaza), lurpeko garaje pribatuetarako sarbideak eta disuasio-aparkalekuak (300 plazatik gorakoa) eraikitzeke sarbide zuzena ezarri ahal izateke.
- **Bizitegi-antolamendua, gutxi gorabehera 45.000 m²-ko hirigintza-eraikigarritasunekoa (450 etxebizitza), hego-ekialdetik ipar-mendebaldeko ardatzean kokatzen da**. Bloke isolatuak proposatu dira, profil desberdinekoak,

eguzkiztapena eta aurrez aurre ez dauden ikuspegiak izan ditzaten. Oinezkoentzako bulebarrak Zuberoako blokeen arteko egungo plazatxoaren beste aldeko muturrean aurreikusitako ekipamendu soziokulturalarekin lotzen du aukera batean; eta, bestean, ekipamendua ardatz horren erdialdean kokatzea proposatzen da.

- Etxebizitzetara lotutako aparkalekuak, Zuberoa-San Juan eraikinei dagozkienak barne, sotoan jartzea eta horien antolamendua ahalik eta bilduena izatea, ahal den gutxien baldintzatzeko lur azalean landatuko diren zuhaitzen kokapena.
- Bide historikoa balioan jartzea eta haren trazadura, ahal den neurrian, errespetatzea.
- San Juan kalean proposatutako lur azaleko aparkalekuak sartzeko aparkaleku eraikinean, ahal den neurrian.
- Tren-azpiegitura kokatutako partzela eremuaren mugaketatik kanpo uztea, eta, azpiegiturak, tren-sistema orokorra kalifikazioa izaten jarraitzea.
- Antolamendu berriko eraikinen lerroakadurak errespetatzea trenbide-legerian ezarritako eraikitze mugak-lerroa.
- **Ingurumen harresi berdea.** Espazio libreak, ekipamenduen antzera, **modu jarraian proposatzen dira.** Gaur egungo erreka balioan jartzen da eta berdegune lineal bat proposatzen da Ttorre errekatik Elozegi parkeraino.
- **Elozegi parkeko sarrera** nagusia San Esteban parketik egitea, eta parkeko irisgarritasuna hobetzea.
- **Bi plaza publiko** egotea: bata, Zuberoa eraikin multzoaren eta Hirualdeta eraikinaren inguruan; eta, bestea, ekipamendu publikoaren inguruan.

LAUGARRENA.- 2025eko otsailaren 12an jasotako **irismen-dokumentuari** buruz honakoa:

Irismen-dokumentuak honako administrazio sektorialen erantzunak jaso ditu:

- Kultura Ondarearen, Jabetza Intelektualaren eta Lege Gordailuaren Zuzendaritzak egindako txostena, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailekoa.
- Natura Ondarearen eta Klima Aldaketarako Egokitzapenaren Zuzendaritzak egindako txostena, Eusko Jaurlaritzako Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailekoa.
- Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak egindako txostena, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailekoa.
- ADIFeko Iparraldeko Ondare eta Hirigintza arloko Zuzendariak egindako txostena.

Irismen Dokumentuak jaso ditu aipatutako administrazio sektorialek emandako erantzunak, eta ardatz hartuta kultura- eta natura-ondarea, egoera akustikoa eta arriskuak, jarraian azaltzen den

azterketa laburra egin du:

1- Kultura-ondareari dagokionez:

ADIFek adierazi du, ingurumen-dokumentuan eguneratu beharra dagoela 2019ko uztailaren 30ean (6770 sarrera erregistro zk.) egindako eskaera: trenbide-eraikinak katalogotik kentzea. Izan ere, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eskaerari oniritzia eman zion arren, gaur gaurkoz ez duela eskatutako aldaketari buruzko behin betiko onarpenaren berririk.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen, Jabetza Intelektualaren eta Lege Gordailuaren Zuzendaritzak 2019ko urriaren 23an egindako txostena aipatzen du, zeinak honakoa gomendatzen duen: batetik, mantentzea «74. Elektrifikazio-tailerrak» elementua, etxebizitza eta hari erantsitako luzerako nabe batez osatua; eta, bestetik, behar bezala dokumentatzea «77. Trenbideko langilearen etxea» eta «Elektrifikazio-tailerren eranskinak» haiek eraitsi aurretik; eta, eraispen prozesuan bermatzea ez direla kaltetuko babestutako eraikinak.

2- Natura-ondareari dagokionez:

Natura Ondarearen eta Klima Aldaketarako Egokitzapenaren Zuzendaritzak ontzat eman du Elosgi parkea, auzo zein herri mailako espazio libreen oinarritzako elementu gisa balioestea. Horri dagokionez, beharrezkotzat jotzen da Elosgi parkea kontserbatzeko eta haren balioa nabarmentzeko zehaztapenak berariaz jasotzea San Esteban eremuko araudi partikularrean.

Halaber, positiboki baloratu da Torre errearen ertzak birnaturalizatzeko proposamena; eta, beharrezkotzat jotzen da proposamen hori garatzea ondorengo hirigintza dokumentuetan eta ingurumen ebaluazio estrategikoan. Horretarako, zehaztu beharko dira, besteak beste, zeintzuk izango diren lehengoratu beharreko azalerak eta erabili beharreko espezieak, kontuan izanda [Lorategi eta berdegune jasangarriak diseinatzeko eskuliburua](#), IHOBEk argitaratutakoa. Gainera, espazio libre hauen diseinurako irizpideak bermatzeko, San Esteban eremuko araudi partikularrean jaso beharko dira.

3- Egoera akustikoari dagokionez ADIFek dio:

Batetik, antolamendu berriak kontuan hartu beharko lukeela Trenbide-Ardatz Handien Zarataren Mapa Estrategikoa; bestetik, Inpaktu Akustikoaren Azterketak hartu beharko duela trenbide-sarearen zortasun akustikoei buruzko informazioa (egungo trenbidearena eta etorkizuneko AHTrena); eta, bukatzeko, IAAk jaso beharko duela, baita, kalitate akustikoari buruzko helburuak, zeintzuek zehazten diren, batetik, Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen duen urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuan (II Eranskinen A, B eta C taulak), eta, baita ere, Eraikuntzaren Kode Teknikoan, DB-HR dokumentuan. Txostenean, aipatutako araudia aplikatzearen ondoriozko emaitzak sartu beharko dira.

Bestalde, ADIFek gogorarazten du, batetik, trenbide-sarearekin mugakide diren eremu guztiek, trenbidearen eraginpeko zonetan erabilerarako mugak aplikatu behar

zaizkienek, beren arau berezietan jaso beharko dituztela zaratari buruzko zehaztapenak, indarreko araudiaren arabera; eta, bestetik, trenbidearen eraginpeko eremuetan obrak egiteko ADIFen baimena beharko dela.

- 4- **Arriskuei dagokionez** Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak adierazi du:

Uholde arriskuari buruz, Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoak xedatutakoaz gain, bete beharko dela, baita, EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatze Lurraldearen Arloko Planak ezarritakoa. Nolanahi ere, azterlanaren eremuko uholde-arriskua handitzea saihestuko da, batetik; eta, bestetik, instalazioak kokatuko dira 500 urteko errepikatze-denborako uraldiari dagokion kota baino gorago.

Lurrikara arriskuei buruz, eraikin berrietan kontuan hartuko dela irailaren 27ko 997/2002 Errege Dekretuz onartutako eraikuntza-arau sismorresistentea: zati orokorra eta eraikuntza (NCSR-02).

Merkantzia arriskutsuen garraioari lotutako arriskuei buruz, komunikazio-bideak aldatzerakoan, istripua gertatuz gero larrialdien kudeaketa optimoa izan dadin, kontuan hartu beharko direla larrialdietako ibilgailuen joan-etorria errazteko ekimen guztiak.

Arloko administrazio horiek guztiek egindako ekarpenak aintzat hartuta, Ingurumen Ebaluazio Estrategikoan (IEE) kontuan hartu beharreko funtsezko alderdien definizioa eta irismena zehaztu da.

Hala ere, azpimarratu nahi da, ADIFek kultura-ondarearen arloan egindako aipamen hau:

«ADIFek adierazi du, ingurumen-dokumentuan eguneratu beharra dagoela 2019ko uztailaren 30ean (6770 sarrera erregistro zk.) egindako eskaera: trenbide-eraikinak katalogotik kentzea. Izan ere, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eskaerari oniritzia eman zion arren, gaur gaurkoz ez duela eskatutako alaketari buruzko behin betiko onarpenaren berririk.»

Adierazpen horri buruz, esan beharra dago Tolosako Udalbatzak, 2020ko urriaren 29an egindako Ohiko Osoko Bilkuran, besteak beste, honakoa onartu zuela:

- «Trenbide langilearen etxea» (52 zk.) Tolosako hirigintza katalogotik kentzea.
- «Telegrafos dorrea»ren (30 zk.) izena aldatzea, eta, haren ordezt, «Elektrifikazio etxea» deitzea. Katalogoan mantentzea, lehenengo babes mailarekin, eta eraikin honen alboko egitura gehigarria katalogotik kentzea.

Ondorioz, irismen-agiriak jasotakoa eta udalak onartzeko proposatutako irizpide eta helburuak bateragarriak direla esan daiteke.

BOSGARRENA.- Irismen-agiriaz gain, honako bi administrazio hauetako txostenak ere jaso direla Tolosako udalean:



- 1- Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Saileko txostena (2025-2290 sarrera zk.).
- 2- Uraren Euskal Agentziak egindako txostena (2025-2803 sarrera zk.).

Bi administrazio hauek ezarritako zehaztapenak ere kontuan hartu beharko dira Ingurumen Ebaluazio Estrategikoaren idazketarako. (...)>>

BIGARRENA.- Gaiaren inguruan hirigintzako tekniko juridikoak, 2025eko abenduaren 4ean, egindako txosten juridikoan (MAU25061) barneratutako **azterketa juridikoa**:

<< (...)

A) ZUZENBIDEZKO OINARRIAK.

I. Legedi aplikagarria honako hauek zehazten dute:

- 7/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hiri Birgaitzeari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena
- 1492/2011 Errege Dekretua, urriaren 24koa, Lurzoruaren Legearen Balorazioen Erregelamendua onartzen duena
- 4/1990 Legea, maiatzaren 31koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolakuntzari buruzkoa
- 128/2019 Dekretua, uztailaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduen Gidalerroak behin betiko onartzen dituena
- 64/2020 Dekretua, maiatzaren 19koa, zeinaren bidez behin betiko onartzen baita Tolosako Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partziala (Tolosaldea).
- Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektoriala
- Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana (Isurialde Kantauriarra eta Mediterraneoa)
- Kantauri ekialdeko demarkazio hidrografikoaren Espainiako zatiko plan hidrologikoa (2022-2027)
- Euskal Autonomia Erkidegoko trenbide sarearen lurraldearen arloko plana
- 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa
- 105/2008 Dekretua, ekainaren 30koa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzeko premiazko neurriei buruzkoa
- 11/2008 Legea, azaroaren 28koa, hirigintza-ekintzak sortutako gainbalioetan erkidegoak duen partaidetza aldatzen duena
- 123/2012 Dekretua, uztailaren 3koa, hirigintza-estandarrei buruzkoa
- 2/2014 Legea, urriaren 2koa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea aldatzen duena.
- 46/2020 Dekretua, martxoaren 24koa, lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituena
- 20/1997 Legea, abenduaren 4koa, irisgarritasuna sustatzekoa
- 3/2015 Legea, ekainaren 18koa, Etxebizitzarena
- 6/2019 Legea, maiatzaren 9koa, Euskal Kultura Ondarearena
- 14/2023 Legea, azaroaren 30ekoa, Euskal Kultura Ondarearen maiatzaren 9ko 6/2019 Legea aldatzekoa



- 90/2014 Dekretua, ekainaren 3koa, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzeari buruzkoa
- 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, ingurumen-ebaluazioari buruzkoa
- 9/2018 Legea, abenduaren 5koa, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legea aldatzen duena
- 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzkoa
- 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duena, 2015eko otsailaren 16an zuzendua
- 1/2014 Legegintzako Dekretua, apirilaren 15koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duena
- Klima Aldaketaren aurka Borrokatzeko Euskal Plana.

B) AZTERKETA JURIDIKOA.

Tolosako HAPOko «11. San Esteban» hirigintza esparruko aldaketa puntuala aurrerapenarekin izapidetzea erabaki zenez, aintzat harturik hirigintza-plangintzaren prozedura zein ingurumen-prozedura, honako hau da espediente honetan jarraitu beharreko eta, aurrekariak kontuan izanda, jada jarraitzen ari den prozedura:

HIRIGINTZA-PLANGINTZAREN PROZEDURA.	INGURUMEN-PROZEDURA.
2/2006 Legea, ekainaren 30koa, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoa. 105/2008 Dekretua, ekainaren 3koa.	21/2013 Legea, abenduaren 9koa, ingurumen-ebaluazioari buruzkoa.
1.- Udalak aurretiazko azterlanak egin, hirigintzako informazioa bildu eta hasierako diagnostikoak eta helburuak proposatu ahal izango ditu (2/2006 Legearen 86. artikulua). Dokumentua idaztea erabaki ondoren, organo eskudunei informazioa eskatuko zaie, eta bi hilabeteko epean emango da (Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 90.1 artikulua). Hasteko erabakiarekin batera, herritarrek parte hartzeko programa aurkeztuko da (Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 108. artikulua). 2.- Aurrerapena egitea. 3.- Aurrerapena jendaurrean jartzea, gutxienez 2 hilabetez. Iragarkia lurralde historikoko aldizkari ofizialean, tirada handieneko egunkari batean eta bitarteko elektronikoetan argitaratzea. Mugakide diren udalei eta, hala badagokio, Arabako Administrazio Batzarrei jakinaraztea, jakinaren gainean egon daitezen eta txostena egin dezaten. (Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 90.3 artikulua).	2.bis.- Aldi berean, udalak hasierako dokumentu estrategikoa eta IEE arrunta hasteko eskaera egingo ditu. 3.bis.- Eusko Jaurlaritzako edo foru aldundiko ingurumen-organoari bidaliko zaio, 7.000 biztanletik gorako udalerrien kasuan. Ingurumen-organoak hilabeteko epean kontsulta egingo die eragindako administrazio publikoei eta pertsona interesdunei. 4.- Ingurumen-organoak ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen-dokumentua egin eta jakinaraziko du, hasteko eskaera jaso eta gehienez ere 3 hilabeteko epean, eta udalera



5.- Jendaurrean jartzearen eta irismen-dokumentuaren emaitzak ikusita, Udalak PO hasierako onespenerako dokumentua idazteko irizpideak eta helburuak ezarriko ditu (2/2006 Legearen 90.4 artikulua). 6.- Hasierako onespenerako dokumentu teknikoa egitea. 7.- Udalak hasierako onespenera emango dio Plan Orokorrari. 8.- Dokumentua jendaurrean jarriko da, erabakia aldizkarian eta egunkarian argitaratzen denetik gutxienez 45 eguneko epean. Onespenera sektoreko administrazioei eta administrazio-batzarrei jakinaraziko zaie. 9.- Plan Orokorraren behin-behineko onespenera, dagozkion aldaketekin. Araban, erabakia igorriko die administrazio-batzarrei (2/2006 Legearen 90.6 artikulua). 10.- Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearen txostena (2/2006 Legearen 91.2 artikulua). Epea: 3 hilabete. 11.- Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearen txostena udalari bidaliko zaio. 12.- 7.000 biztanletik beherako udalerrietan, espediente osoa udalak bidaliko dio foru-aldundiari, behin betiko onar dezan.	bidaliko du kontsultei emandako erantzunekin batera (Ingurumen Ebaluazioari buruzko 21/13 Legearen 19. artikulua). Ingurumen-organoaren eta udalaren egoitza elektronikoan argitaratzen da. 6.bis.- Aldi berean, ingurumen-azterketa estrategikoa idatziko da, irismen-dokumentua kontuan hartuta. (Ingurumen-ebaluazioari buruzko Legearen 20. artikulua). 8.bis.- Udalak 45 egun balioduneko epean bidaliko die espedientearen eragindako administrazio publikoei, eragindako pertsonen, aurrez kontsultatutako pertsona interesduneri eta egoitza elektronikoari kontsultak egiteko. Informazio publikoak ingurumen-azterketa estrategikokoaren laburpen ez-tekniko bat izango du (Ingurumen-ebaluazioari buruzko Legearen 21. artikulua). Hala badagokio, ingurumen-azterketa estrategikoa aldatzea, kontsulten eta alegazioen arabera. 10.bis.- Ingurumen-organoak espedientearen azterketa teknikoa egitea eta bi hilabeteko epean ingurumen-adierazpen estrategikoa egitea (ingurumen-ebaluazioari buruzko Legearen 24. eta 25. artikulua). EHAAn eta ingurumen-organoaren egoitza elektronikoan argitaratzea. 11. bis- Ingurumen-adierazpen estrategikoa udalari bidaliko zaio.
13.- Udalak edo, hala badagokio, foru-aldundiak behin betiko onartzea, eta ALHAOn argitaratzea hirigintza-arauekin batera (2/2006 Legearen 89.5 eta 91.4 artikulua) ALHAOn argitaratzea eta egoitza elektronikoa: ingurumen-alderdiak nola txertatu diren (Ingurumen-ebaluazioari buruzko Legearen 26. art.) (Dekretuaren 7. art.).	

Espedientearen une honetan 5. puntuaren dago, beraz, prozeduran hurrengo urratsa da Tolosako HAPOko «11. San Esteban» hirigintza esparruko aldatzea puntuala idazteko oinarri izango diren IRIZPIDEAK ETA HELBURUAK ONARTZEA eta, horrekin batera, ingurumen-azterketa estrategikokoaren IRISMEN-DOKUMENTUA JENDAURREAN JARTZEA, udal honen egoitza elektronikoaren bidez.

Adierazitako erabaki horien ondoren, hasierako onespenerako dokumentu teknikoak egiteko eta, aldi berean, ingurumen-azterketa estrategikoa idazteko (irismen-dokumentua kontuan hartuta) erabakia hartu beharko da.

Bestalde, kontuan hartuz Tolosako Udal Plangintza Aholku Batzordearen araudiko (2021/07/10 GAO 131. zk.) 5. Artikuluan araututakoa, Udal Plangintzako Aholku Batzordeak derrigorrez hartu behar du parte egiturazko antolamenduari eragiten dioten plangintza tresnen lehen formulazioko, berrikuste osoko, berrikuste partzialeko edo aldakuntza puntualeko espedienteen inguruko kasuetan. Hala, artikulua horretako hirugarren puntuan arautzen da Plan Orokorren aldakuntza puntualeko espedienteetan, derrigorrezkoa izango dela proposaturiko agiriaren edukari buruzko txostena aurkeztea, hasierako onarpena emateko. Eta, plangintzaren aurrerakin dokumenturik egonez gero, bere edukari buruzko txostenak aipaturiko planeamenduei hasierako onarpena emateko agiriari buruzko txostena ordezkatu ahal izango duela. Txosten hori egiteko epea hilabetekoa izango da; batzordeak dagokion dokumentua aztertu duen bileraren datatik abiatuta. Hori horrela, Tolosako Udal Plangintza Aholku Batzordeak txostena egin beharko du Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorren aldaketa puntualaren, «11. San Esteban» hirigintza esparruari dagokiona, aurrerapenaren edukari buruz.

Adierazitako betebeharrak hori betetzeko, 2025eko uztailaren 24an, Plangintza Aholku Batzordearen bilkura egin zen. Bertan, gaiaren inguruko azalpenak eman ziren eta, baita, izandako ekarpen eta hauei erantzuteko udalaren proposamena. Honekin batera, batzordekideei hilabeteko epea eman zitzaion gaiaren inguruko ekarpenak egiteko, ondoren txosten batean barneratzeko asmoz.

Hori horrela, 2025eko irailaren 18an, batzordeko idazkariak jasotako ekarpenekin honakoa jaso zuen:

«TOLOSAKO UDAL PLANGINTZAKO AHOLKU BATZORDEAREN TXOSTENA

UDAL PLANGINTZAKO AHOLKU BATZORDEARI TOLOSAKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORREKO «11. SAN ESTEBAN» HIRIGINTZA ESPARRUKO ALDAKETA PUNTUALA IDAZTEKO OINARRI IZANGO DIREN IRIZPIDEAK ETA HELBURUAK ONARTZEKO BATZORDEKIDEEK EGINDAKO EKARPENAK.

Ekarpenak aurkezteko emandako hilabeteko epean (irailaren 12 arte), bi ekarpen hauek jaso dira:

1. 2028/08/14an, Nekane Izagirre Maiza, mezu bitartez:

“Kaixo Miren,

Eskerrik asko informazio akta eta prozesu guztian eginiko lana modu laburrean aurkezteko egin duzuen lanagatik.

Nere aldetik ekarpen gutxi egin ditzaket. Ulertzen dut bertan bizi direnek egunerokotasunean duten errealitatearen jakitun handienak beraiek direla eta dituzten zailtasun, gabezia eta baita aukerak ere inork baino hobetoago dakizkitela.

Nere aldetik beraz auzoa garatzeko eta egunerokoa hobetzeko auzotarrek egin dituzten proposamenen babes osoa besterik ez zait gelditzen beti ere legeak jartzen duen erreferentziazko markoaren barruan.



Puntu bat dago ez dudana ulertu eta seguraski definituta dago baino ez naiz gai izan ikusteko. Hau da, momentu honetan urte batzuk geldirik daraman osasun etxearen erabilera.

Besterik gabe eskertu zuen lana

Izan ondo

Nekane Izagirre Maiza”

2. 2025/09/12an, Xarles Iturbe Pasaban EAJ-PNV taldearen ordezkari gisa, Tolosako Udaleko erregistro bidez (erregistro zk. 2025-12006);

“TOLOSAKO EAJ-PNV UDAL TALDEAK SAN ESTEBAN AUZOAREN ETORKIZUNEN GARAPEN URBANISTIKOARI BURUZKO EKARPENAK

<<11. San Esteban>> hirigintza esparruko aldaketa puntuala idazteko oinarri izango diren irizpide eta helburuen harira

- Tolosaldeko Eremu Funtzionalaren Plan Partziala (LPP) aztertu ostean, Tolosako Udala Hirigintza Sailaren txostenek adierazten dute San Esteban esparrua bizitegi-garapen berrirako izaera estrategikoa duen eremu bat dela, dentsitate altuko garapen bat aurreikusiz. Horretaz gain, txosten teknikoek diote, Olarrain eta Amarotzeko esparruekin batera, San Estebanekoa, babes publikoko etxebizitzak garatzeko lurzoru erreserba garrantzitsua dela.
- Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak ezartzen du, 77. artikuluan, zein den gutxieneko eta gehieneko eraikigarritasuna hiri lurzoruetan (<<11. San Esteban>> hirigintza esparrua, hiri lurzorua da): legeak agintzen dituen eraikigarritasunak, beraz, gutxienez 0,4 m² (t) / m² (s) eta gehienez 2,3 m² (t) / m² (s) dira halako lurzoruetan.
- Udala Gobernu arduetan dagoen EH Bilduk bultzatzen duen aldaketa hau gauzatuko balitz, etxebizitza kopurua 450 etxebizitzetara mugatzeko hautuaren ondorioz, eraikigarritasuna 0,84 m² (t) / m² (s) zifran geratuko litzateke udal hirigintza teknikariek ateratako datuen arabera (datu hauek prozesuan zehar jasotako alegazioei emandako erantzunetan azaltzen dira).
- Zer ondorioztatzen da beraz: legeak eraikigarritasunak 0,4 – 2,3 m² (t) / m² (s) bitarte horretan egon behar badu, EH Bilduk oso azpitik utzi nahi duela eraikigarritasuna irudikatutako garapen urbanistikoan.
- Gure apustua ez da eraikuntza-dentsitatearen mailan legeak baimentzen duen maximoetara joatea, baina bai uste dugula arduraz jokatu beharra dagoela, eta ezin dugula lurzoru horren azpi erabilpenik egin, ezin dugu hiri lurzorua xahutu, EH Bilduk proposatzen duen bezala.
- Gure proposamena gutxienez 650 etxebizitzaren aldeko apustua egitea izango litzateke (aurreko legealdian abiatutako bidearen harira), betiere legeak ahalbidetzen duen dentsitateen barruan.
- San Estebango eremu urbanistikoaren jabetzaren egitura zein den ere gogoan izatea derrigorrezkoa da: hiri lurzoruaren jabetzaren erdia baino gehiago Tolosako Udalarena da. Honek aukera paregabe bat suposatzen du Tolosako Udalarentzat etxebizitzaren gaiari luzera begirako irtenbide bat eman ahal izateko gure herrian; aukera eta ardura, biak.
- Gauzak horrela izanik, aukera ezin hobe bat dauka Tolosako Udalak eremu horretan etxebizitza babestua, soziala eta eskuragarria sustatzeko.
- Kontraesankorra da gure ustetan “bizitegi-larrialdiaz” hitz egitea edota Tolosa gune tenkatu izendatzearen aldeko apustua egitea edota behin eta berriz Jaurilaritzako etxebizitza eskatzaileen zerrendetan zenbat tolosar dauden gogoraraztea, eta era berean, eremu honek eskaintzen dituen aukera guztiekin, EH Bilduk eremu honen garapen urbanistikoarekiko erakusten duen anbizio falta.
- EH Bilduren planteamendua 450 etxebizitza eraikitzearen aldeko apustua da: % 60 babestua aipatzen da (% 30a babes ofizialekoa eta % 30a tasatua): 135 babes ofizialeko + 135 tasatu + 180 libre.
- Gure proposamena, esan bezala, gutxienez 650 etxebizitza eraikitzearen aldekoa da, eta haietatik gutxienez % 70 babespekoak izatea (indarrean dagoen 2009ko HAPOk babes maila



hau aurreikusten du, %70; EH Bilduk % 60eko babes maila proposatzen du bere proposamenean). Orohar: 227 babes ofizialeko + 227 tasatu + 196 libre.

- Beraz, gure proposamenean gutxienez 184 etxebizitza babestu gehiago eraikitzeko aukera legoke.
- Gure ustetan, San Esteban auzoko lurzorua Tolosak baliatu beharreko aukera paregabe bat dira etxebizitzaren gaiari luzera begirako irtenbide bat emateko eta horrek herri ikuspegi bat behar du, tolosar guztion interes orokorretik abiatuta, ez soilik gaurko auzotarren nahietatik".>>

Ekarpenei dagokionez, zehazki, Xarles Iturbe Pasabanek EAJ-PNV taldearen ordezkari gisa egindakoari dagokionez, besteak beste, aipatzen du etxebizitza kopurua 450 etxebizitzetara mugatzeko hautuaren ondorioz, eraikigarritasuna 0,84 m² (t) / m² (s) zifran geratuko litzatekeela; udal hirigintza teknikariek ateratako datuen arabera, adieraziz datu hori prozesuan zehar jasotako alegazioei emandako erantzunetan azaltzen dela.

Honen aurrean, ekarpenaren edukian sartu gabe, besterik gabe adierazi behar da hirigintzako teknikoaren akatsa izan dela adieraztea 450 etxebizitza kopuruarekin hirigintza eraikigarritasuna 0,84 m² (t) / m² (s) ingurukoa izango dela. Izan ere, hiri lurzorua azalera egokiarekin kalkulata, etxebizitza kopuru horrekin hirigintza eraikigarritasuna 1,42 m² (t) / m² (s) ingurukoa izango bailitzake.

Beraz, argitzen da hirigintza-eraikigarritasunaren indize zuzena 1,42 m² (t) / m² (s) dela.

Amaitzeko, kontuan izan behar da 2025eko abenduaren 9an parte-hartze programan definitutako amaierako saioa egingo dela; herritarrei HAPOn aldaketa puntuala idazteko udalak onartuko dituen irizpide eta helburuak zehazteko.>>

Aurreko guztia aintzat harturik, Lurralde Batzorde Informatiboari honakoa proposatzen zaio:

IRIZPEN-PROPOSAMENA

LEHENA.- Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren aldaketa puntualaren, <<11. San Esteban>> hirigintza esparruari dagokiona, aurrerapena jendaurrean jartzeko izapidean EGIN-DAKO IRADOKIZUNEN BERRI EMATEA.

Zehazki honako lau iradokizunak jaso dira:

• A.E.C.:

Eskatzen du Tolosako Udaleko egoitza elektronikoan Tolosako HAPOk <<11. San Esteban>> hirigintza esparruko aldaketa puntualaren aurrerapen-dokumentua eta hasierako dokumentu estrategikoa eskuragarri jartzea.

• J.A.R.T.:

Eskatzen du Tolosako Udalean 2022ko abenduan aurkeztu zuen eskaeraren inguruan erantzun bat nahi duela.

• E.B.G.:

Eskatzen du Tolosako Udaleko egoitza elektronikoan Tolosako HAPOk <<11. San Esteban>> hirigintza esparruko aldaketa puntualaren aurrerapen-dokumentua osorik, planoak barne, eskuragarri jartzea eta iradokizunak zein alternatibak aurkezteko epea luzatzea.

· ADIF:

Eskatzen du tren-azpiegitura kokatutako partzela eremuaren mugaketatik kanpo uztea eta, azpiegiturak, tren-sistema orokorra kalifikazioa izaten jarraitzea.

Adierazten du antolamendu berriko eraikinen lerrokadurak trenbide-legerian ezarritako eraikitze muga-lerroa errespetatu beharko dutela.

Eskatzen du HAPOren aldaketaren dokumentazioan txertatuko den azterlan akustikoak barne hartzea indarreko legeriak zehaztutako bibrazio-mailaren azterketa.

Eta, dokumentazioan, ADIFen baimena eskatzeko beharra aipatzea trenbidearen eragin-eremuetan egin beharreko obra eta jarduketetarako.

· J.A.G.:

Eskatzen du Elozegi parkeko sarrera San Esteban parkera lekualdatzea, egungoa baliogabetuta, hobetzea San Esteban parketik mendira doan bide publikoa, oso egoera txarrean dagoelako; eta, Bonberenea birkokatzea, eragiten dituen zarata eta eragozpenengatik, etorkizuneko etxebizitzetatik ahalik eta gehien aldentuta.

· Ander Auzmendi Perez de Lazarraga arkitektoa, P.M.G. ordezkatzuz:

Eskatzen du Bonberenea eraikina mantentzea argudiatuz pisu handiko kultura-ekipamendua dela, ez bakarrik Tolosa mailan. Eskatzen du udalari eraikina mantentzearen aldeko erabaki irmoa hartzea, ulertuta Bonberenea ondarearen parte dela.

· Maria Gurruchaga Insausti eta beste bost arkitekto:

Iradokitzen dute edozein hazkuntza planteatu aurretik, azterketa sakonago bat egin beharko litzatekeela, aztertuta zein den dagoeneko eraikitako etxebizitza kopuruaren benetako ahalmena; arrazoituz, hori egin gabe, nekez jakin daitekeela etxebizitza berriak eraikitze benetako beharra.

Bestalde, adierazten dute gehiegizkoa iruditzen zaiela HAPOk San Esteban esparruari ezarritako 1011 etxebizitzako eraikigarritasuna; eta, aurrerakinean ez dela behar bezala arrazoitu eraikigarritasunaren murrizketa: hain zuzen ere, aurreikusitako 1011 etxebizitzatik 450 etxebizitzetara.

Halaber, argudiatzen da San Esteban auzoan proposatutako antolamenduak ez duela errespetatzen aurrerakinak hitzez zehaztutako xedea eta eskatzen dute antolamendu berriari ekiteko garaian kontuan hartzea auzoaren berezko izaera; hain zuzen ere, hiri-gunea eta landa-eremuaren arteko ingurua. Diote, ezinezkoa dela auzoak berezko izaerari eustea zortzi solairuko eraikinak proiektatuta eta egungo bizilagunen kopurua boskoiztuta. Aurrerakinako dokumentuaren inguruan, honako gogoetak jasotzen dituzte:

- **Eraikigarritasuna:** gehiegizkoa iruditzen zaie esparruari esleitutako eraikigarritasuna. Diotenez, esparruak 8 hektarea dituen arren, eraikin berriak kokatzeko, soilik, 3 hektareako azalera du. Horregatik, 450 etxebizitza eraiki ordez, gehienez, 360 eraikitzea proposatzen dute.
- **Etxebizitzen tipologia:** diote proposatutako eraikinek ez dutela betetzen bizigarritasun baldintzei buruzko 80/2022 dekretuak ezarritakoa. Horregatik, proposatzen dute eraikinetako etxebizitzak alderik aldekoak izatea. Tamainari dagokionez, etxebizitza txikiagoak planteatu beharko liratekeela, 70 eta 85 m² bitarteko batez besteko azalera eraikiarekin.



- **Ttorre eta Elozegi parkea:** proposatzen da Ttorre erreka-stoaren ibilbidea berreskuratzea, batetik; eta, bestetik, Elozegi parkea, mendiaren jarraipena dela ulertuta, irisgarritasuna bermatzeko ahaleginak alde batera uztea, eta soilik hobetzea parkerako sarrerak.
- Ttorre eta San Frantzisko komentuen arteko **bide historikoa** balioan jartzea eskatzen da paisaiaren elementu egituratzailea izan baitzen.
- **Bonberenea** dagoen tokian mantentzearen alde egiten dute, auzoko kultur-ekipamendu hau ezinbesteko kultur mintegia delako, oso preziatua, ez bakarri herri mailan, baita nazioarteko mailan ere.
- **Ferialekua** botatzea proposatzen dute, argudiatuta, besteak beste, eraikina mantentzeak garapen berriaren kokapena urruntzea ekarriko duela, eta, ondorioz, herriarekiko loturaren ahultzea. Ferialekuaren ordean, etxebizitzak kokatzea proposatzen dute, eta, bidez batez, soilik okupatzea behar-beharrezkoak diren eremu naturalak.
- **Aparkalekuei dagokionez**, diote, kalitate txikiagoko lursailean kokatu beharko liratekeela: erreka-stoa eta industria pabilioien arteko eremuan, adibidez. Halaber, planteatzen dute kentzea San Juan kalean proposatutako lur azaleko aparkalekuak eta horiek sartzea aparkaleku eraikinean. Bukatzeko, iradokitzen dute etxebizitzetako lotutako aparkalekuak, Zuberoa-San Juan eraikinei dagozkienak barne, sotoan jartzea eta horien antolamendua ahalik eta bilduena izatea, ahal den gutxien baldintzatzeke lur azalean landatuko diren zuhaitzen kokapena.
- **Hiru Aldeta eta Etxe-alai** eraikinak botatzea proposatzen dute, lehengoak, arkitektura aldetik ez duelako inolako interesik, eta bigarrena mantentzeak oztopatuko lukelako Ttorreko erreka-stoa berreskuratzea eta balioan jartzea.

Eta, honen inguruan honakoa adierazi zein erantzuten da:

- A.E.C. eta E.B.G. herritarrek egindako eskaera aintzat harturik, berehala zintzilikatu ziren eskatutakoak udaleko egoitza elektronikoan (helbidea: <https://udala.tolosa.eus/eu/zerbitzuak/hirigintza-eta-azpiegiturak/planeamendu-orokorra>).
- J.A.R.T. herritarrek egindako eskaeraren inguruan aipatu behar da eskaeraren objektua ez datorrela bat espediente honen xedearekin, hau da, eskaera 1991. Urtean onartutako urbanizazio proiektuari buruzkoa da eta espediente honen xedea da Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren aldaketa puntualaren, <<11. San Esteban>> hirigintza esparruari dagokiona, irizpide eta helburuak finkatzea. Beraz, aurreago, birpartzelazio- zein urbanizazio-proiektuak onartu behar direnean, erabakiko da nola uztartu herritarrek aipatzen duenarekin.
- ADIF-ek aipatutako puntu guztiak kontuan hartuko dira <<11. San Esteban>> hirigintza esparruko aldaketa puntualaren hasierako onespeneraren dokumentua egin eta izapidetzeko garaian.
- J.A.G. herritarrek egindako eskaerari dagokionez, kontuan hartzekoa da aurrerakinak aukeren artean hartzen duela Elozegi parkerako sarbide bat San Esteban parketik eta beste bat San Juan kaletik. San Esteban parketik mendira doan bidea konpontzeko buruz, ordea, <<11. San Esteban>> hirigintza esparruko esparrutik kanpo geratzen denez ez da aztertuko. Eta, Bonberenea eraikinaren lekualdatze

proposamenari dagokionez, aurrerakineko proposamenen artean jasotzen da (ikusi 3.3, 3.4, 4.1 eta 4.2 planoak). Hala ere, haren behin-betiko kokapena zein izango den aurrerago zehaztuko da.

- Ander Auzmendi Perez de Lazarraga arkitektoak, P.M.G. ordezkatzuz, egindako eskaerari dagokionez, aipatu behar da udalak hasieratik zehaztutako irizpidea izan dela etorkizuneko auzorako eta Tolosarako zentzua duten eraikinen berrerabilera bultzatzea, beti ere auzoaren antolaketa nabarmen oztopatuko ez badu. Nolanahi ere, arestian esan bezala, Bonberenea eraikinaren behin-betiko kokapena zein izango den aurrerago zehaztuko da.
- Maria Gurruchaga Insausti eta beste bost arkitektoak egindako eskaera zein gogoetei dagokionez honakoa aipatzen da:

- **Etxebizitza kopuruaren benetako ahalmenari buruzko azterketa sakonago bat egiteari buruz**, honakoa esan beharra dago:

Batetik, LAGak zehazten du zein den herri bakoitzeko etxebizitza-beharra, eta bizitegi-kuantifikazioan hartzen ditu barne hutsak dauden etxebizitzak.

Bestetik, Tolosako Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialak (LPP) San Esteban esparrua bizitegi-garapen berrirako izaera estrategikoa duen eremutat hartzen du, dentsitate altuko garapen bat aurreikusita. Horrez gain, LPPk dio, Olarrain eta Amartzeko esparruekin batera, San Estebanekoa dela babes publikoko etxebizitzak garatzeko lurzoru erreserba garrantzitsua.

- **Auzoaren izaera mantentzeko garapen berriaren etxebizitza kopurua jaisteari buruz**, honakoa:

2009an onartutako Plan Orokorrak 1011 etxebizitza aurreikusten ditu ($1'8 \text{ m}^2(\text{t})/\text{m}^2(\text{s})$ -ko eraikigarritasuna) eremu honetarako, aldiz, HAPO aldaketarako 450 etxebizitza proposatu dira.

2024ko martxoko Hasierako Dokumentu Estrategikoan azaltzen denez, azken kopuru hori prozesu baten ondoriozkoa da. Izan ere, 2014ko parte hartze prozesutik eratorritako proposamena izan zen etxebizitza kopurua 150era jaistea ($0'27 \text{ m}^2(\text{t})/\text{m}^2(\text{s})$ -ko eraikigarritasuna). Baina, lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 legeak ezartzen du, 77. artikuluan, zein izan behar den gehieneko eta gutxieneko eraikigarritasuna; hiri lurzoruetan, gutxienez, $0'4 \text{ m}^2(\text{t})/\text{m}^2(\text{s})$ izanik, eta, gehienez, $2'3 \text{ m}^2(\text{t})/\text{m}^2(\text{s})$. Hori dela eta, San Esteban esparruaren antolaketarako, $0'4$ - $2'3$ tarte horretan sartuko den etxebizitza kopurua proposatu beharko da.

Horren ildotik, HAPO aldaketa puntualaren prozedurarekin batera doan parte hartze prozesuan honako alternatiba hauek proposatu ziren: 2.1, 2.2, 2.3 eta 2.4 alternatibak, alde batetik, eta, bestetik, 3.1 eta 3.2 alternatibak. Lehenengo lau aukeren eraikigarritasuna $1'45 \text{ m}^2(\text{t})/\text{m}^2(\text{s})$ -ekoa zen, 650 etxebizitza planteatuta; azken biek, aldiz, 450 etxebizitza planteatzen zituzten, hain zuzen ere, 2023ko



ekainean gobernu aldaketa etorri zenean erabakitako kopurua. Parte hartze prozesuko 4. bileran, deboluzio tailerrean, azken bi alternatibek hartu zuten pisu handiagoa.

Ekarpenean eskatutako 360 etxebizitzaren eraikigarritasuna lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 legeak ezarritako gutxieneko 0'4 eta gehieneko 2'3 tartearen barruan egongo liratekeen arren, 0'67 m²(t)/m²(s)-ko eraikigarritasunarekin, kontuan hartu behar da, baita, lege bereko beste zehaztapen hau: gutxienez, etxebizitzaren %40 babestuak izan behar dira.

Hori guztia aintzat hartuta, eta ekonomikoki bideragarria izan behar denez, HAPOn aldaketa puntuala idazteko egokitzat jotzen da San Esteban auzoaren antolamendurako 450 etxebizitza kopurua, 1'42 m²(t)/m²(s)-ko eraikigarritasuna izango lukeena.

- **Etxebizitzaren tipologiari buruz egindako ekarpenari dagokionez**, bizigarritasun baldintzei buruzko 80/2022 dekretuak dioena betetzeko, 3 logelako etxebizitzek 105/110 m²(t) bitarteko azalera izan beharko lukete; erabilera komuneko azalerak ere sartzen direlako. Arkitektoek proposatutako 70-85 m²(t)-ko azalera 1 edo 2 logelako etxebizitzetara legokie.
Dena den, Aurrerakin faseari ez dagokio etxebizitzaren tipologia zehaztea. Gai hori, hasierako onespenerako dokumentuan landuko da.
- **Torre eta Elozegi parkearen inguruan egindako ekarpenari erantzunez**, orain arte ez da planteatu Torre erreka-eremuaren jatorrizko ibilgua berreskuratzea; bai, ordea, egungo ibilgua mantentzea ertzak berreskuratuta. Errekastoa balioan jartzea eta antolamenduan integratzea hasiera-hasieratik hartu izan da irizpidetzat.
Bestalde, Elozegi parkerako iragarritasuna hobetzea parte hartze prozesuko alternatiba guztietan jasotzen da.
- **Bide historikoa** balioan jartzeko egindako ekarpenarekin bat egiten du udalak eta, ahal den neurrian, haren trazadura errespetatzen saiatuko da. Hala ere, aurrerakineko aukeretan kontuan hartu da bide historikoaren trazadura, eta ez da eraikinik kokatu bide horren espazioan.
- **Bonberenea** dagoen tokian mantentzea edo lekualdatzea hurrengo pausuan zehaztuko da. Dena den, modu batera edo bestera, ekipamendua esparruaren barruan antolatuko da.
- **Ferialakua eta aparkalekuak**: Ferialakuen ordez etxebizitzak kokatzea baztatu egin zen Zarata legeagatik. Udalaren hasierako irizpidea izan da ferialakua birgaitzea eta alboan aparkaleku eraikin bat eraikitzea "koltxo akustiko" gisa. Bestalde, Mugikortasun Planak jasotzen du udal aparkalekuaren kokapena; hain zuzen ere, ferialaren ondoan.

Lur azaleko aparkalekuak aparkaleku eraikinean sartzeari buruzko ekarpena aintzat hartuko da. Aurrerakinean kontuan hartu da zein den auzoaren eta herriaren beharra aparkalekuei dagokionez, hala ere, orain ez dagokio zehaztea horien antolamendua: hurrengo pausuan zehaztuko da, beraz.

Bestalde, onargarria iruditzen zaio udalari honako ekarpena: etxebizitzetako lotutako aparkalekuak, Zuberoa-San Juan eraikinei dagozkienak barne, sotoan jartzea eta horien antolamendua ahalik eta bilduena izatea, ahal den gutxien baldintzatzeko lur azalean landatuko diren zuhaitzen kokapena.

- **Hiru Aldeta eta Etxe-alai eraikinak botatzeko iradokizunari buruz**, bizilagunen eskaerari kasu eginez baztertu egin zen ideia hori.

BIGARRENA.- Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorren aldaketa puntuala, <<11. San Esteban>> hirigintza esparruari dagokiona, idazteko oinarri izango diren IRIZPIDEAK ETA HELBURUAK ONARTZEA, zehazki honako hauek:

- **San Esteban auzoko egungo bizitegi-egitura finkatzea, Hiru Aldeta eta Etxe-alai barne, eta Ttorre errearen inguruko baserri-multzoa baita.**
- **Ahal den neurrian, etorkizuneko auzorako eta Tolosarako zentzua duten eraikinen berrerabilpena bultzatzea, beti ere auzoaren antolaketa nabarmen oztotatu ez badu.**
- **Garapen ekonomikorako aukerak eskainiko ditu etorkizuneko auzoak. Aukera horiek euskara, kultura eta sormenari lotutakoak izan daitezke: herriaren indarguneak, hain zuzen ere.**
- **Erabilera nahastura: merkataritza-erabilerak eta hirugarren sektorekoak proposatzen dira, San Juan etorbide berriaren eta sortzen den oinezkoentzako bulebarraren arteko eraikinen lehen ilararen beheko solairuetan. Bigarren ilarako eraikinetako behe solairuetan, berriz, etxebizitza erabilera proposatzen da.**
- **Ferialekua mantentzea eta birgaitzea.**
- **Anbulatorioaren eta Ferialaren jarraipen gisa proposatutako hirugarren sektoreko ekipamendu, zuzkidura eta erabilera berrien kokapen perimetrala, "koltxoi akustikoaren" efektua lortzeko, eta gainerako hiri-bilbearekiko lotura eta irisgarritasun azkarra lortzeko, sistema orokorrak diren aldetik: aparkaleku eraikin bat eraikitzea proposatzen da.**
- **San Juan kaleko bide-sarearen egungo trazadura aldatzea, bateriako aparkaleku publikoak (140 plaza), lurpeko garaje pribatuetarako sarbideak eta disuasio-aparkalekuak (300 plazatik gorakoa) eraikitzeko sarbide zuzena ezarri ahal izateko.**
- **Bizitegi-antolamendua, gutxi gorabehera 45.000 m²-ko hirigintza-eraikigarritasunekoa (450 etxebizitza), hego-ekialdetik ipar-mendebalderako ardatzean kokatzen da. Bloke isolatuak proposatu dira, profil desberdinekoak, eguzkitzapeña eta aurrez aurre ez dauden ikuspegiak izan ditzaten. Oinezkoentzako bulebarrak Zuberoako blokeen arteko egungo plazatxoaren errearen beste aldeko**



muturrean aurreikusitako ekipamendu soziokulturalarekin lotzen du aukera batean; eta, bestean, ekipamendua ardatz horren erdialdean kokatzea proposatzen da.

- Etxebizitzetako lotutako aparkalekuak, Zuberoa-San Juan eraikinei dagozkienak barne, sotoan jartzea eta horien antolamendua ahalik eta bilduena izatea, ahal den gutxien baldintzatzeko lur azalean landatuko diren zuhaitzen kokapena.
- Bide historikoaren trazadura, ahal den neurrian, barneratzea antolamendu berrian.
- San Juan kalean proposatutako lur azaleko aparkalekuak sartzea aparkaleku eraikinean, ahal den neurrian.
- Tren-azpiegitura kokatutako partzela eremuaren mugaketatik kanpo uztea, eta, azpiegiturak, tren-sistema orokorra kalifikazioa izaten jarraitzea.
- Antolamendu berriko eraikinen lerrokadurak errespetatzea trenbide-legerian ezarritako eraikitze muga-lerroa.
- Ingurumen harresi berdea. Espazio libreak, ekipamenduen antzera, modu jarraian proposatzen dira. Gaur egungo erreka balioan jartzen da eta berdegune lineal bat proposatzen da Ttorre errekatik Elozegi parkeraino.
- Elozegi parkeko sarrera nagusia San Esteban parketik egitea, eta parkeko irisgarritasuna hobetzea.
- Bi plaza publiko egotea: bata, Zuberoa eraikin multzoaren eta Hiru Aldeta eraikinaren inguruan; eta, bestea, ekipamendu publikoaren inguruan.

HIRUGARRENA.- Ingurumen-azterketa estrategikoaren IRISMEN-DOKUMENTUA JENDAU-
RREAN JARTZEA, udal honen egoitza elektronikoaren bidez.

LAUGARRENA.- Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorren aldaketa puntualaren, «11. San Esteban» hirigintza esparruari dagokiona, hasierako onespeneren dokumentua egiteko eta ingurumen-azterketa estrategikoa idazteko agintzea, kontuan hartuta irismen-dokumentua zein 2025eko otsailaren 12an GFAko Ondare H^o-A^oren Zerbitzuak egindako txostena eta 2025eko otsailaren 20ko Uraren Euskal Agentziako Plangintza eta Lanen Zuzendaritzaren txostena, kanpoko idazketa-taldea bati.

BOSGARRENA.- Plana idazten eta prestatzen amaitu ondoren, has bedi Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorren aldaketa puntualari, «11. San Esteban» hirigintza esparruari dagokiona, hasierako onespenera emateko prozedura, dagozkion txosten sektorialak eskatu ondoren.

SEIGARRENA.- Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, lurraldean hedapen handiena duen egunkari batean eta udalaren webgunean argitaratzea, aurkeztutako iradokizunen egileei erabakiaren beraren eta iradokizunen azterketaren berri emateko, eta jakinarazten da haren aurka, izapide hutseko administrazio-egintza bat denez, ezin dela errekurtsorik jarri.

Iradokizunak aurkeztu dituztenek espedientean edo udal honetako Hirigintza Sailaren bulegoetan, bulego-ordutegian, jasotako azterketa-txosten teknikoak ezagutu eta kontsultatu ahal izango dute.

Aurreko guztia aintzat harturik, Tolosako Udaleko Lurraldeko Batzorde Informatiboak, 2025eko abenduaren 10ean egindako bilkuran, irizpen-proposamena aztertu eta bozkatu du.

Bozketaren ondoren emaitza hau izan da:

Aldeko botoak: Ander Figuerido Zubiria, Aitor Agirresarobe Murgi, Aitzol Garzia Azurmendi eta Garbiñe Marzol Ormazabal.

Abstentzioko botoak: Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria eta Jose Mari Villanueva Telleria.

Beraz, gehiengoz, Batzordeak honako irizpen hau onartzea proposatzen dio Udalbatzaren Osoko bilkurari:

IRIZPENA

LEHENEA.- Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren aldaketa puntualaren, <<11. San Esteban>> hirigintza esparruari dagokiona, aurrerapena jendaurrean jartzeko izapidean EGIN-DAKO IRADOKIZUNEN BERRI EMATEA.

Zehazki honako lau iradokizunak jaso dira:

- A.E.C.:

Eskatzen du Tolosako Udaleko egoitza elektronikoan Tolosako HAPOko <<11. San Esteban>> hirigintza esparruko aldaketa puntualaren aurrerapen-dokumentua eta hasierako dokumentu estrategikoa eskuragarri jartzea.

- J.A.R.T.:

Eskatzen du Tolosako Udalean 2022ko abenduan aurkeztu zuen eskaeraren inguruan erantzun bat nahi duela.

- E.B.G.:

Eskatzen du Tolosako Udaleko egoitza elektronikoan Tolosako HAPOko <<11. San Esteban>> hirigintza esparruko aldaketa puntualaren aurrerapen-dokumentua osorik, planoak barne, eskuragarri jartzea eta iradokizunak zein alternatibak aurkezteko epea luzatzea.

- ADIF:

Eskatzen du tren-azpiegitura kokatutako partzela eremuaren mugaketatik kanpo uztea eta, azpiegiturak, tren-sistema orokorra kalifikazioa izaten jarraitzea.

Adierazten du antolamendu berriko eraikinen lerroakadurak trenbide-legerian ezarritako eraikitze mugak errespetatu beharko dutela.

Eskatzen du HAPOren aldaketaren dokumentazioan txertatuko den azterlan akustikoak barne hartzea indarreko legeriak zehaztutako bibrazio-mailaren azterketa.

Eta, dokumentazioan, ADIFen baimena eskatzeko beharra aipatzea trenbidearen eragin-eremuetan egin beharreko obra eta jarduketetarako.

- J.A.G.:

Eskatzen du Elosegi parkeko sarrera San Esteban parkera lekualdatzea, egungoa baliogabetuta, hobetzea San Esteban parketik mendira doan bide publikoa, oso egoera txarrean dagoelako; eta, Bonberenea birkokatzea, eragiten dituen zarata eta eragozpenengatik, etorkizuneko etxebizitzetatik ahalik eta gehien aldenduta.



- Ander Auzmendi Perez de Lazarraga arkitektoa, P.M.G. ordezkatzuz:

Eskatzen du Bonberenea eraikina mantentzea argudiatuz pisu handiko kultura-ekipamendua dela, ez bakarrik Tolosa mailan. Eskatzen du udalari eraikina mantentzearen aldeko erabaki irmoa hartzea, ulertuta Bonberenea ondarearen parte dela.

- Maria Gurruchaga Insausti eta beste bost arkitekto:

Iradokitzen dute edozein hazkuntza planteatu aurretik, azterketa sakonago bat egin beharko litzatekeela, aztertuta zein den dagoeneko eraikitako etxebizitza kopuruaren benetako ahalmena; arrazoituz, hori egin gabe, nekez jakin daitekeela etxebizitza berriak eraikitzeke benetako beharra.

Bestalde, adierazten dute gehiegizkoa iruditzen zaiela HAPOk San Esteban esparruari ezarritako 1011 etxebizitzako eraikigarritasuna; eta, aurrerakinean ez dela behar bezala arrazoitu eraikigarritasunaren murrizketa: hain zuzen ere, aurreikusitako 1011 etxebizitzatik 450 etxebizitzetara.

Halaber, argudiatzen da San Esteban auzoan proposatutako antolamenduak ez duela errespetatzen aurrerakinak hitzez zehaztutako xedea eta eskatzen dute antolamendu berriari ekiteko garaian kontuan hartzea auzoaren berezko izaera; hain zuzen ere, hiri-gunea eta landa-eremuaren arteko ingurua. Diote, ezinezkoa dela auzoak berezko izaerari eustea zortzi solairuko eraikinak proiektatuta eta egungo bizilagunen kopurua boskoiztuta. Aurrerakineko dokumentuaren inguruan, honako gogoetak jasotzen dituzte:

- **Eraikigarritasuna:** gehiegizkoa iruditzen zaie esparruari esleitutako eraikigarritasuna. Diotenez, esparruak 8 hektarea dituen arren, eraikin berriak kokatzeko, soilik, 3 hektareako azalera du. Horregatik, 450 etxebizitza eraiki ordeztuz, gehienez, 360 eraikitzea proposatzen dute.
- **Etxebizitzaren tipologia:** diote proposatutako eraikinek ez dutela betetzen bizigarritasun baldintzei buruzko 80/2022 dekretuak ezarritakoa. Horregatik, proposatzen dute eraikinetako etxebizitzak alderik aldekoak izatea. Tamainari dagokionez, etxebizitza txikiagoak planteatu beharko liratekeela, 70 eta 85 m² bitarteko batez besteko azalera eraikiarekin.
- **Torre eta Elozegi parkea:** proposatzen da Torre erreka-eremuaren ibilbidea berreskuratzea, batetik; eta, bestetik, Elozegi parkea, mendiaren jarraipena dela ulertuta, irisgarritasuna bermatzeko ahaletarako alde batera uztea, eta soilik hobetzea parkerako sarrerak.
- Torre eta San Frantzisko eremuaren arteko **bide historikoa** balioan jartzea eskatzen da paisaiaren elementu egituratzailea izan baitzen.
- **Bonberenea** dagoen tokian mantentzearen alde egiten dute, auzoko kultur-ekipamendu hau ezinbesteko kultur mintegia delako, oso preziatua, ez bakarrik herri mailan, baita nazioarteko mailan ere.
- **Ferialekua** botatzea proposatzen dute, argudiatuta, besteak beste, eraikina mantentzeak garapen berriaren kokapena urruntzea ekarriko duela, eta, ondorioz, herriarekiko loturaren ahultzea. Ferialekuaren ordeztuz, etxebizitzak kokatzea proposatzen dute, eta, bidez batez, soilik okupatzea behar-beharrezkoak diren eremu naturalak.
- **Aparkalekuei dagokionez**, diote, kalitate txikiagoko lursailean kokatu beharko liratekeela: erreka-eremu eta industria pabilioien arteko eremuan, adibidez. Halaber, planteatzen dute kentzea San Juan kalean proposatutako lur azaleko aparkalekuak eta horiek

sartzea aparkaleku eraikinean. Bukatzeko, iradokitzen dute etxebizitzei lotutako aparkalekuak, Zuberoa-San Juan eraikinei dagozkienak barne, sotoan jartzea eta horien antolamendua ahalik eta bilduena izatea, ahal den gutxien baldintzatzeko lur azalean landatuko diren zuhaitzen kokapena.

- **Hiru Aldeta eta Etxe-alai** eraikinak botatzea proposatzen dute, lehengoak, arkitektura aldetik ez duelako inolako interesik, eta bigarrena mantentzeak oztopatuko luke-elako Ttorreko errekaetara berreskuratzea eta balioan jartzea.

Eta, honen inguruan honakoa adierazi zein erantzuten da:

- A.E.C. eta E.B.G. herritarrek egindako eskaera aintzat harturik, berehala zintzilikatu ziren eskatutakoak udaleko egoitza elektronikoan (helbidea: <https://udala.tolosa.eus/eu/zerbitzuak/hirigintza-eta-azpiegiturak/planeamendu-orokorra>).
- J.A.R.T. herritarrek egindako eskaeraren inguruan aipatu behar da eskaeraren objektua ez datorrela bat espediente honen xedearekin, hau da, eskaera 1991. Urtean onartutako urbanizazio proiektuari buruzkoa da eta espediente honen xedea da Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren aldaketa puntualaren, <<11. San Esteban>> hirigintza esparruari dagokiona, irizpide eta helburuak finkatzea. Beraz, aurrerago, birpartzelazio- zein urbanizazio-proiektuak onartu behar direnean, erabakiko da nola uztartu herritarrek aipatzen duenarekin.
- ADIF-ek aipatutako puntu guztiak kontuan hartuko dira <<11. San Esteban>> hirigintza esparruko aldaketa puntualaren hasierako onespeneraren dokumentua egin eta izapidetzeko garaian.
- J.A.G. herritarrek egindako eskaerari dagokionez, kontuan hartzekoa da aurrerakinak aukeren artean hartzen duela Elosegi parkerako sarbide bat San Esteban parketik eta beste bat San Juan kaletik. San Esteban parketik mendira doan bidea konpontzeari buruz, ordea, <<11. San Esteban>> hirigintza esparruko esparrutik kanpo geratzen denez ez da aztertuko. Eta, Bonberenea eraikinaren lekualdatze proposamenari dagokionez, aurrerakinako proposamenen artean jasotzen da (ikusi 3.3, 3.4, 4.1 eta 4.2 planoak). Hala ere, haren behin-betiko kokapena zein izango den aurrerago zehaztuko da.
- Ander Auzmendi Perez de Lazarraga arkitektoak, P.M.G. ordezkatzuz, egindako eskaerari dagokionez, aipatu behar da udalak hasieratik zehaztutako irizpidea izan dela etorkizuneko auzorako eta Tolosarako zentzua duten eraikinen berrerabilera bultzatzea, beti ere auzoaren antolaketa nabarmen oztopatuko ez badu. Nolanahi ere, arestian esan bezala, Bonberenea eraikinaren behin-betiko kokapena zein izango den aurrerago zehaztuko da.
- Maria Gurruchaga Insausti eta beste bost arkitektoak egindako eskaera zein gogoetei dagokionez honakoa aipatzen da:
 - **Etxebizitza kopuruaren benetako ahalmenari buruzko azterketa sakonago bat egiteari buruz**, honakoa esan beharra dago:

Batetik, LAGak zehazten du zein den herri bakoitzeko etxebizitza-beharra, eta bizitegi-kuantifikazioan hartzen ditu barne hutsak dauden etxebizitzak.

Bestetik, Tolosako Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialak (LPP) San Esteban esparrua bizitegi-garapen berrirako izaera estrategikoa duen eremutzat hartzen du, dentsitate altuko garapen bat aurreikusita. Horrez gain, LPPk dio, Olarrain eta Amarotzeko esparruekin batera, San Estebanekoa dela babes publikoko etxebizitzak garatzeko lurzoru erreserba garrantzitsua.

• **Auzoaren izaera mantentzeko garapen berriaren etxebizitza kopurua jaisteari buruz, honakoa:**

2009an onartutako Plan Orokorrak 1011 etxebizitza aurreikusten ditu ($1'8 \text{ m}^2(\text{t})/\text{m}^2(\text{s})$ -ko eraikigarritasuna) eremu honetarako, aldiz, HAPO aldaketarako 450 etxebizitza proposatu dira.

2024ko martxoko Hasierako Dokumentu Estrategikoan azaltzen denez, azken kopuru hori prozesu baten ondoriozkoa da. Izan ere, 2014ko parte hartze prozesutik eratorritako proposamena izan zen etxebizitza kopurua 150era jaistea ($0'27 \text{ m}^2(\text{t})/\text{m}^2(\text{s})$ -ko eraikigarritasuna). Baina, lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 legeak ezartzen du, 77. artikuluan, zein izan behar den gehieneko eta gutxieneko eraikigarritasuna; hiri lurzoruetan, gutxienez, $0'4 \text{ m}^2(\text{t})/\text{m}^2(\text{s})$ izanik, eta, gehienez, $2'3 \text{ m}^2(\text{t})/\text{m}^2(\text{s})$. Hori dela eta, San Esteban esparruaren antolaketarako, $0'4$ - $2'3$ tarte horretan sartuko den etxebizitza kopurua proposatu beharko da.

Horren ildotik, HAPO aldaketa puntualaren prozedurarekin batera doan parte hartze prozesuan honako alternatiba hauek proposatu ziren: 2.1, 2.2, 2.3 eta 2.4 alternatibak, alde batetik, eta, bestetik, 3.1 eta 3.2 alternatibak. Lehenengo lau aukeren eraikigarritasuna $1'45 \text{ m}^2(\text{t})/\text{m}^2(\text{s})$ -ekoa zen, 650 etxebizitza planteatuta; azken biek, aldiz, 450 etxebizitza planteatzen zituzten, hain zuzen ere, 2023ko ekainean gobernu aldaketa etorri zenean erabakitako kopurua. Parte hartze prozesuko 4. bileran, deboluzio tailerrean, azken bi alternatibek hartu zuten pisu handiagoa.

Ekarpenean eskatutako 360 etxebizitzaren eraikigarritasuna lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 legeak ezarritako gutxieneko $0'4$ eta gehieneko $2'3$ tartearen barruan egongo liratekeen arren, $0'67 \text{ m}^2(\text{t})/\text{m}^2(\text{s})$ -ko eraikigarritasunarekin, kontuan hartu behar da, baita, lege bereko beste zehaztapen hau: gutxienez, etxebizitzaren %40 babestuak izan behar dira.

Hori guztia aintzat hartuta, eta ekonomikoki bideragarria izan behar denez, HAPOren aldaketa puntuala idazteko egokitzen jotzen da San Esteban auzoaren antolamendurako 450 etxebizitza kopurua, $1'42 \text{ m}^2(\text{t})/\text{m}^2(\text{s})$ -ko eraikigarritasuna izango lukeena.



- **Etxebizitzaren tipologiari buruz egindako ekarpenari dagokionez**, bizigarritasun baldintzei buruzko 80/2022 dekretuak dioena betetzeko, 3 logelako etxebizitzek 105/110 m²(t) bitarteko azalera izan beharko lukete; erabilera komuneko azalerak ere sartzen direlako. Arkitektoek proposatutako 70-85 m²(t)-ko azalera 1 edo 2 logelako etxebizitzetara legokie.
Dena den, Aurrerakin faseari ez dagokio etxebizitzaren tipologia zehaztea. Gai hori, hasierako onespenerako dokumentuan landuko da.
- **Torre eta Elozegi parkearen inguruan egindako ekarpenari erantzunez**, orain arte ez da planteatu Torre erreka-eremuaren jatorrizko ibilgua berreskuratzea; bai, ordea, egungo ibilgua mantentzea ertzak berreskuratuta. Errekastoa balioan jartzea eta antolamenduan integratzea hasiera-hasieratik hartu izan da irizpidetzat.
Bestalde, Elozegi parkerako irisgarritasuna hobetzea parte hartze prozesuko alternatiba guztietan jasotzen da.
- **Bide historikoa** balioan jartzeko egindako ekarpenarekin bat egiten du udalak eta, ahal den neurrian, haren trazadura errespetatzen saiatuko da. Hala ere, aurrerakinako aukeretan kontuan hartu da bide historikoaren trazadura, eta ez da eraikinik kokatu bide horren espazioan.
- **Bonberenea** dagoen tokian mantentzea edo lekualdatzea hurrengo pausuan zehaztuko da. Dena den, modu batera edo bestera, ekipamendua esparruaren barruan antolatuko da.
- **Ferialekua eta aparkalekuak**: Ferialekuaren ordez etxebizitzak kokatzea baztatu egin zen Zarata legeagatik. Udalaren hasierako irizpidea izan da ferialekua birgaitzea eta alboan aparkaleku eraikin bat eraikitzea "koltxoi akustiko" gisa. Bestalde, Mugikortasun Planak jasotzen du udal aparkalekuaren kokapena; hain zuzen ere, ferialekua ondoan.
Lur azaleko aparkalekuak aparkaleku eraikinean sartzeari buruzko ekarpena aintzat hartuko da. Aurrerakinaren kontuan hartu da zein den auzoaren eta herriaren beharra aparkalekuei dagokionez, hala ere, orain ez dagokio zehaztea horien antolamendua: hurrengo pausuan zehaztuko da, beraz.
Bestalde, onargarria iruditzen zaio udalari honako ekarpena: etxebizitzetara lotutako aparkalekuak, Zuberoa-San Juan eraikinei dagozkienak barne, sotoan jartzea eta horien antolamendua ahalik eta bilduena izatea, ahal den gutxien baldintzatzeko lur azalean landatuko diren zuhaitzen kokapena.
- **Hiru Aldeta eta Etxe-alai eraikinak botatzeko iradokizunari buruz**, bizilagunen eskaerari kasu eginez baztertu egin zen ideia hori.

BIGARRENA.- Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorren aldaketa puntuala, <<11. San Esteban>> hirigintza esparruari dagokiona, idatzeko oinarri izango diren IRIZPIDEAK ETA HELBURUAK ONARTZEA, zehazki honako hauek:



- San Esteban auzoko egungo bizitegi-egitura finkatzea, Hiru Aldeta eta Etxe-alai barne, eta Ttorre errearen inguruko baserri-multzoa baita.
- Ahal den neurrian, etorkizuneko auzorako eta Tolosarako zentzua duten eraikinen berrerabilpena bultzatzea, beti ere auzoaren antolaketa nabarmen oztopatuko ez badu.
- Garapen ekonomikorako aukerak eskainiko ditu etorkizuneko auzoak. Aukera horiek euskara, kultura eta sormenari lotutakoak izan daitezke: herriaren indarguneak, hain zuzen ere.
- Erabilera nahastura: merkataritza-erabilerak eta hirugarren sektorekoak proposatzen dira, San Juan etorbide berriaren eta sortzen den oinezkoentzako bulebarraren arteko eraikinen lehen ilararen beheko solairuetan. Bigarren ilarako eraikinetako behe solairuetan, berriz, etxebizitza erabilera proposatzen da.
- Ferialekua mantentzea eta birgaitzea.
- Anbulatorioaren eta Ferialaren jarraipen gisa proposatutako hirugarren sektoreko ekipamendu, zuzkidura eta erabilera berrien kokapen perimetrala, "koltxoi akustikoaren" efektua lortzeko, eta gainerako hiri-bilbearekiko lotura eta irisgarritasun azkarra lortzeko, sistema orokorrak diren aldetik: aparkaleku eraikin bat eraikitzea proposatzen da.
- San Juan kaleko bide-sarearen egungo trazadura aldatzea, bateriako aparkaleku publikoak (140 plaza), lurpeko garaje pribatuetarako sarbideak eta disuasio-aparkalekuak (300 plazatik gorakoa) eraikitzeko sarbide zuzena ezarri ahal izateko.
- Bizitegi-antolamendua, gutxi gorabehera 45.000 m²-ko hirigintza-eraikigarritasunekoa (450 etxebizitza), hego-ekialdetik ipar-mendebalderako ardatzean kokatzen da. Bloke isolatuak proposatu dira, profil desberdinekoak, eguzkiztapena eta aurrez aurre ez dauden ikuspegiak izan ditzaten. Oinezkoentzako bulebarrak Zuberoako blokeen arteko egungo plazatxoaren errearen beste aldeko muturrean aurreikusitako ekipamendu soziokulturalarekin lotzen du aukera batean; eta, bestean, ekipamendua ardatz horren erdialdean kokatzea proposatzen da.
- Etxebizitzei lotutako aparkalekuak, Zuberoa-San Juan eraikinei dagozkienak barne, sotoan jartzea eta horien antolamendua ahalik eta bilduena izatea, ahal den gutxien baldintzatzeko lur azalean landatuko diren zuhaitzen kokapena.
- Bide historikoaren trazadura, ahal den neurrian, barneratzea antolamendu berrian.
- San Juan kalean proposatutako lur azaleko aparkalekuak sartzea aparkaleku eraikinean, ahal den neurrian.
- Tren-azpiegitura kokatutako partzela eremuaren mugaketatik kanpo uztea, eta, azpiegiturak, tren-sistema orokorra kalifikazioa izaten jarraitzea.
- Antolamendu berriko eraikinen lerroakadurak errespetatzea trenbide-legerian ezarritako eraikitzeko muga-lerroa.
- Ingurumen harresi berdea. Espazio libreak, ekipamenduen antzera, modu jarraian proposatzen dira. Gaur egungo erreka balioan jartzen da eta berdegune lineal bat proposatzen da Ttorre errekatik Elozegi parkeraino.

- **Elosegi parkeko sarrera nagusia San Esteban parketik egitea, eta parkeko irisgarritasuna hobetzea.**
- **Bi plaza publiko egotea: bata, Zuberoa eraikin multzoaren eta Hiru Aldeta eraikinaren inguruan; eta, bestea, ekipamendu publikoaren inguruan.**

HIRUGARRENA.- Ingurumen-azterketa estrategikoaren IRISMEN-DOKUMENTUA JENDARRERAN JARTZEA, udal honen egoitza elektronikoaren bidez.

LAUGARRENA.- Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren aldaketa puntualaren, «11. San Esteban» hirigintza esparruari dagokiona, hasierako onespeneren dokumentua egiteko eta ingurumen-azterketa estrategikoa idazteko agintzea, kontuan hartuta irismen-dokumentua zein 2025eko otsailaren 12an GFAko Ondare H^o-A^oren Zerbitzuak egindako txostena eta 2025eko otsailaren 20ko Uraren Euskal Agentziako Plangintza eta Lanen Zuzendaritzaren txostena, kanpoko idazketa-taldea bati.

BOSGARRENA.- Plana idazten eta prestatzen amaitu ondoren, has bedi Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren aldaketa puntualari, «11. San Esteban» hirigintza esparruari dagokiona, hasierako onespenera emateko prozedura, dagozkion txosten sektorialak eskatu ondoren.

SEIGARRENA.- Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, lurraldean hedapen handiena duen egunkari batean eta udalaren webgunean argitaratzea, aurkeztutako iradokizunen egileei erabakiaren beraren eta iradokizunen azterketaren berri emateko, eta jakinarazten da haren aurka, izapide hutseko administrazio-egintza bat denez, ezin dela errekursorik jarri.

Iradokizunak aurkeztu dituztenek espedientean edo udal honetako Hirigintza Sailaren bulegoetan, bulego-ordutegian, jasotako azterketa-txosten teknikoa ezagutu eta kontsultatu ahal izango dute.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko Botoak: Angel Martinez de Rituerto Arregui, Miren Yosune Sanz Vidal, Maria Estibalitz Kortejarena Ugarte, Goiuri Eceiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Aitor Aguirresarobe Murgui, Cristina Pelaez Errazquin, Aitzol Luis Garcia Azurmendi eta Miren Garbiñe Marzol Ormazabal.

Aurkako Botoak: Xarles Iturbe Pasaban, Maria Leire Zubeldia Rezola, Javier Francisco Zabala Sastre, Ainhoa Domínguez Landa, Jose Francisco Amantegui Zubiria, Miren Biotxa Aguirre Ugalde, Iker Uson Gonzalez eta Jose Maria Villanueva Telleria.

Beraz, Udalbatzak, gehiengoz, onartu du Tolosako hiri antolamenduko plan orokorraren «11. san esteban» hirigintza esparruko aldaketa puntuala idazteko oinarri izango diren irizpideak eta helburuak.



**9. PUNTUA. 12/2025 KREDITU-
ALDAKETAREN BERRI EMATEA, KREDITU
GAIKUNTZAREN MODALITATEKOA.**

**PUNTO 9. DAR CUENTA SOBRE LA
MODIFICACIÓN DE CRÉDITOS 12/2025, EN
LA MODALIDAD DE HABILITACIÓN DE
CRÉDITO.**

**12/2025 kreditu gehigarrien modalitateko kreduditu aldaketaren berri eman da.
2025/2740 Alkatetza dekretuak honela dio:**

ALKATETZA DEKRETUA

ANGEL MARTINEZ DE RITUERTO ARREGUI Tolosako Udaleko alkate-udalburuarena, bat etorrita Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 artikuluan ezarritakoarekin.

IKUSIRIK

Tolosako Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gaikuntzaren modalitatekoa, 12/2025 kreditu aldaketa.

Kontu-hartzaileak idatzitako txostenaren arabera espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Aipatutako Foru Arauak 34.3 artikuluen bitartez ematen dizkidan eskumenez baliatuz, hau

EBAZTEN DUT

LEHENA.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gaikuntzaren modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapituluko laburpen honen arabera:



GASTUAK

Kap.	Izena	Euroak
1	PERTSONAL GASTUAK	25.272,00
GAITUTAKO KREDITUAK GUZTIRA		25.272,00

SARRERAK

Kap.	Izena	Euroak
4 (SARRERAK)	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	25.272,00
FINANTZAKETA GUZTIRA		25.272,00

BIGARRENA.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzailetza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa, eta egintza honen berri Udalbatzari eman beharko zaio egiten duen hurrengo bilkuran.

Alkateak agindu eta izenpetua, eta nik, idazkaria naizen honek, ziurtatua, Tolosan, sinaduran agertzen den datan.

ALKATEA

UDAL IDAZKARIA

Angel Martinez de Rituerto Arregui

Sara Berasategui Fuertes

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.



**10. PUNTUA. 13/2025 KREDITU-
ALDAKETAREN BERRI EMATEA, KREDITU
GEHIGARRIEN MODALITATEKOA.**

**PUNTO 10. DAR CUENTA SOBRE LA
MODIFICACIÓN DE CRÉDITOS 13/2025, EN LA
MODALIDAD DE CRÉDITOS ADICIONALES.**

**13/2025 kreditu gehigarrien modalitateko kreduditu aldaketaren berri eman da.
2025/2752 Alkatetza dekretuak honela dio:**

ALKATETZA DEKRETUA

ANGEL MARTINEZ DE RITUERTO ARREGUI Tolosako Udaleko alkate-udalburuarena, bat etorrita Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 artikuluan ezarritakoarekin.

IKUSIRIK

Tolosako Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko 13/2025 espediente, kreditu gehigarrien modalitatekoa. Honek, ondoko taulako xehetasuna dauka:

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0300.120.01.920.00 2025	OINARRIZKO ORDAINKETAK. ADMINISTRATIO ORO	324.787,00	1.486,00	326.273,00
1 0300.121.00.920.00 2025	ORDAINKETA OSAGARRIAK. ADMINISTRATIO OROK	586.693,00	2.956,00	589.649,00
1 0300.160.01.920.00 2025	GIZARTE SEGURANT.KUOTAK. ADMINISTRATIO OR	244.863,00	1.417,00	246.280,00
1 0300.131.01.241.00 2025	ALDI BATERAKO LABORALA. ENPLEGUAREN SUST	236.056,00	8.264,00	244.320,00
1 0300.160.01.241.00 2025	GIZARTE SEGURANTZA. ENPLEGUAREN SUSTAPEN	86.383,00	2.454,00	88.837,00
1 0500.491.10.231.00 2025	PREMIAZKO LAGUNTZA HUMANITARIOA	0,00	3.500,00	3.500,00
GUZTIRA		1.478.782,00	20.077,00	1.498.859,00



Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 870.01 2025	DIRUZAINZA GERAKINA GASTU OROKORRETARAK	20.077,00
FINANTZAKETA GUZTIRA			1.000,00

KONTUAN HARTURIK

Kontu-hartzaile akzidentalak idatzitako txostena, non adierazten den espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Aipatutako Foru Arauak 34.3 artikulua bitartez ematen dizkidan eskumenez baliatuz, hau

EBAZTEN DUT

LEHENEA.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

KREDITU GEHIGARRIAK

Kapituluak	Izena	Gehikuntzak
1	PERTSONAL GASTUAK	16.577,00
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	3.500,00
KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA		20.077,00

FINANTZAKETA

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
8 (SARRERAK)	FINANTZA AKTIBOAK	20.077,00
GUZTIRA		20.077,00

BIGARRENA.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzailatza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa, eta egintza honen berri Udalbatzari eman beharko zaio egiten duen hurrengo bilkuran.

Alkateak agindu eta izenpetua, eta nik, idazkari akzidentala naizen honek, ziurtatua, Tolosan, sinaduran agertzen den datan.

ALKATEA

UDAL IDAZKARI AKZIDENTALA

Angel Martinez de Rituerto Arregui

Francisco Javier Araniguría Rodrigo

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

**11. PUNTUA. 14/2025 KREDITU-
ALDAKETAREN BERRI EMATEA, KREDITU
GEHIGARRIEN MODALITATEKOA.**

**PUNTO 11. DAR CUENTA SOBRE LA
MODIFICACIÓN DE CRÉDITOS 14/2025, EN LA
MODALIDAD DE CRÉDITOS ADICIONALES.**

**14/2025 kreditu gehigarrien modalitateko kreduditu aldatetaren berri eman da.
2025/2928 Alkatetza dekretuak honela dio:**

ALKATETZA DEKRETUA

ANGEL MARTINEZ DE RITUERTO ARREGUI Tolosako Udaleko alkate-udalburuarena, bat etorrita Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 artikuluan ezarritakoarekin.

IKUSIRIK

Tolosako Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko 14/2025 espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa. Honek, ondoko taulako xehetasuna dauka:



Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0600.622.02.152.15 2025	IURRAMENDI BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZAK	0,00	45.500,00	45.500,00
1 1300.421.10.162.30 2025	EKARPENA TOLOSALDEKO MANKOM. HONDAKINEN	790.000,00	100.000,00	890.000,00
1 0800.221.04.326.20 2025	ERREGAIAK. MUSIKA ESKOLA	0,00	8.000,00	8.000,00
1 0700.624.01.153.00 2025	IBILGAILUAK. OBRA ZERBITZUAK	0,00	10.000,00	10.000,00
GUZTIRA		790.000,00	163.500,00	953.500,00

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 870.01 2025	DIRUZAIINTZA GERAKINA GASTU OROKORRETARAK	163.500,00
FINANTZAKETA GUZTIRA			163.500,00

KONTUAN HARTURIK

Kontu-hartzaile akzidentalak idatzitako txostena, non adierazten den espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Aipatutako Foru Arauak 34.3 artikulua bitartez ematen dizkidan eskumenez baliatuz, hau

EBAZTEN DUT

LEHENA.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapituluko laburpen honen arabera:



KREDITU GEHIGARRIAK

Kapituluak	Izena	Gehikuntzak
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	8.000,00
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	100.000,00
6	INBERTSIO ERREALAK	55.500,00
KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA		163.500,00

FINANTZAKETA

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
8 (SARRERAK)	FINANTZA AKTIBOAK	163.500,00
GUZTIRA		163.500,00

BIGARRENA.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzaitza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa, eta egintza honen berri Udalbatzari eman beharko zaio egiten duen hurrengo bilkuran.

Alkateak agindu eta izenpetua, eta nik, idazkaria naizen honek, ziurtatua, Tolosan, sinaduran agertzen den datan.

ALKATEA

Angel Martinez de Rituerto Arregui

UDAL IDAZKARIA

Sara Berasategui Fuertes

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.



**12. PUNTUA. BERRI EMATEA: TOLOSAKO
UDAL-BIZTANLEEN ERROLDAREN
BERRIKUSPENETIK ATERATAKO
BIZTANLEEN KOPURU OFIZIALA, 2025EKO
URTARRILAREN 1EAN.**

**PUNTO 12. DAR CUENTA SOBRE EL NÚMERO
OFICIAL DE HABITANTES DESDE LA
REVISIÓN DEL PADRÓN MUNICIPAL DE
HABITANTES DE TOLOSA, A 1 DE ENERO DE
2025.**

AURREKARIAK

2025ko abenduaren 1ean igorritako bi jakinarazpenetan (15.631 eta 15.632 sarrera erregistroak), Errola Kontseiluak jakinarazi zion udal honi biztanleriaren zifra ofiziala, 2025eko urtarrilaren 1eko datarekin.

ARAUDIA

1. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta Toki Erakundearen Biztanleria eta Lurralde Mugaketari buruzko Erregelamenduak (uztailaren 11ko 1690/1986 Errege Dekretuaren bidez onartua) ezartzen dute udalek Estatistikako Institutu Nazionalari (aurrerantzean, INE) bidali behar dizkiotela, baliabide informatiko edo telematikoen bidez, udal-errolako datuetan gertatzen diren hileko aldaketak

2. Toki-erakundearen Biztanleria eta Lurralde Mugaketari buruzko Erregelamenduaren 81. artikuluan xedatutakoaren arabera, udalek udal-errolak berrikustea onartuko dute, urte bakoitzeko urtarrilaren 1ari erreferentzia eginez, eta aurreko ekitaldian egindako jarduerak formalizatuko dituzte.

Horretarako, kontuan hartuko dituzte dagokion udalerriko errolan izandako aldaketak, hileko truke-fitxategietan Estatistikako Institutu Nazionalera bidali direnak, bai eta hark martxora arte hileko fitxategietan (HppmmMIA.3aA fitxategiak) jakinarazitako koordinazioaren emaitza ere.

3. Populazio-zifraren proposamena lortzeko kontuan hartuko den informazioa erregistro bizi eta aktibo guztiak izango dira erreferentzia-datan, berrikuspenaren urteko urtarrilaren 1ean, eta hauek izango dira:

- Udalek EINera bidali badituzte, IDA-Errolan HppmmMIA.3aa fitxategietarako argitaratutako urteko egutegian ezarritako egunera arte;
- INEren oinarrian sartu direnak;
- Estatistikako Institutu Nazionalaren koordinaziotik eratorritako gorabeheraren batek eragiten ez badie, eta desadostasuna sortu bada, oraindik berretsi edo ebatzi gabe badago.

4. Ebazpenak, 2018ko uztailaren 20koak, Estatistikako Institutu Nazionalaren Lehendakariitzarena eta Autonomia Erkidegoetako eta Tokiko Lankidetzarako Zuzendaritza Nagusiarenak, Udalei jarraibide teknikoak ematen dizkiena udal-errolaren urteko berrikuspenari buruz eta biztanleriaren zifra ofizialen proposamena lortzeko prozedurari buruzkoak emandako prozedura jarraitu ondoren, Udalek urteko egutegian ezarritako epea izango dute EINK egindako eragozpenei alegazioak aurkezteko. Alegazio hauek aztertu eta ebatziko ditu Estatistikako Institutu Nazionalak, Ebazpen



honetan jasotako irizpideak jarraituz. Ebazpenean jasotakoez bestelako argudioetan oinarritutako alegazio oro, EINEK onartzen ez badu, Erroldatze Kontseiluaren esku utziko da desadostasun gisa, hark txostena egin dezan

5. Erroldatze Kontseiluak desadostasunen berri eman ondoren, bai eta EINeko presidenteak Gobernuari helaraziko dion biztanleria-kopuruaren proposamena ere, azken hori udal bakoitzari jakinaraziko zaio, eta, hala badagokio, IDA-Erolda bidez deskargatzeko prest dagoen jakinaraziko zaio FppmMIA.aaa fitxategiari. Fitxategiaren erregistro-diseinua V. eranskinean jaso da, eta alegazioak baietsi/ezetsi egin dira.

Beraz,

Udalbatzak honako honen berri izango du: 2025eko urtarrilaren 1ean Tolosako udalerriko biztanleriaren zifra ofiziala **20.070koa** dela, Estatistikako Institutu Nazionala emandako informazioaren arabera.

Hori horrela, Informazio hau argitaratuko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaleko web orrian eta iragarki taulan.

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

13. PUNTUA. BERRI EMATEA: USABAL KIROLDEGIKO TABERNA-KAFETEGIA GAITU ETA USTIATZEKO KONTRATUA LAGATZEKO AKORDIOA.

PUNTO 13. DAR CUENTA DEL ACUERDO DE CESIÓN DEL CONTRATO DE HABILITACIÓN Y EXPLOTACIÓN DEL BAR-CAFETERÍA DEL POLIDEPORTIVO USABAL.

TXOSTEN JURIDIKOA

Txosten hau ematen da 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, bere Hirugarren Xedapen Gehigarriaren 8. atalean araututakoaren arabera, non udal idazkariari ematen zaion kontratazio-espedienteen aholkularitza juridikoaren zeregina.

INFORME JURÍDICO

El presente informe se emite en virtud de lo dispuesto en el artículo 8 de la Disposición Adicional Tercera de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, que atribuye al secretario municipal la función de asesoramiento jurídico de los expedientes de contratación.



AURREKARIAK

LEHENA.- Tolosa Lantzen, S.A. sozietateko administrazio-kontseiluak 2005eko uztailaren 15ean Tolosako Usabal kiroldegiko taberna-kafetegia gaitzeko eta ustiatzeko kontratua lizitzatzeko baldintza-pleguak onartu zituen.

BIGARRENA.- 2006ko martxoaren 9an Bidensabal 2006, S.L. enpresak lizitazioan parte hartzeko intentzioa azaldu zuen.

HIRUGARRENA.- 2006ko martxoaren 10ean Tolosa Lantzen, S.A. sozietateko administrazio-kontseiluak erabaki zuen modu zuzenean Bidensabal 2006, S.L. enpresari adjudikatzea Tolosako Usabal kiroldegiko taberna-kafetegia gaitzeko eta ustiatzeko kontratua.

Laugarrena.- 2006ko ekainaren 8an formalizatu zen zegokion kontratua Tolosa Lantzen, S.A. eta Bidensabal 2006, S.L. enpresen artean. Hauek ziren kontratuaren ezaugarri nagusiak:

- Iraupena: 25 urte kontratua formalizatzen zenetik, beste 5 urtez luzatzeko aukerarekin.
- Urteko kanona berrikustea: urtero berrikusten da Euskadiko KPlaren arabera.
- Kanonaren zenbatekoa: 1. eta 2. urtean: 0 euro; 3. urtean: 30.000 euro; 4. urtean: 48.000 euro; 5. urtetik aurrera Euskadiko KPlaren arabera berrikusten da.

BOSGARRENA.- 2012ko uztailaren 9an, Bidensabal 2006, S.L. eta Geroegitekoborda, S.L. enpresek idazki bat aurkeztu zuten Tolosa Lantzen, S.A. sozietatearen erregistroan, kontratua lehenengoari lagatzeko eskatuz.

SEIGARRENA.- 2012ko urriaren 8an egindako bilkuran Tolosa Lantzen, S.A. sozietateko administrazio-kontseiluak onartu zuen Bidensabal 2006, S.L. eta Geroegitekoborda, S.L. enpresek egindako zesio-eskaera. Horrenbestez, 2012ko urriaren 9ko datarekin

ANTECEDENTES

PRIMERO.- El Consejo de Administración de la mercantil Tolosa Lantzen, S.A. aprobó el 15 de julio de 2005 los pliegos de condiciones para la licitación del contrato de habilitación y explotación del bar-cafetería del polideportivo Usabal de Tolosa.

SEGUNDO.- Con fecha 9 de marzo de 2006, la mercantil Bidensabal 2006, S.L. manifiesta su intención de participar en dicha licitación.

TERCERO.- Con fecha 10 de marzo de 2006, el Consejo de Administración de Tolosa Lantzen, S.A. acordó adjudicar directamente a la empresa Bidensabal 2006, S.L., el contrato para la habilitación y explotación del bar-cafetería del polideportivo Usabal de Tolosa.

CUARTO.- Con fecha 8 de junio de 2006 se formalizó el correspondiente contrato entre Tolosa Lantzen, S.A. y Bidensabal 2006, S.L. Las principales características del contrato eran:

- Duración: 25 años desde la formalización del contrato, prorrogable por otros 5 años.
- Revisión del canon anual: se revisa anualmente en función del IPC de Euskadi.
- Importe del canon: año 1 y 2: 0 euros; año 3: 30.000 euros; año 4: 48.000 euros; a partir del año 5 se revisa según el IPC de Euskadi.

QUINTO.- El 9 de julio de 2012 las empresas Bidensabal 2006, S.L. y Geroegitekoborda, S.L. presentaron en el registro de la sociedad Tolosa Lantzen, S.A. un escrito en el que solicitaban la cesión del contrato de la primera a la segunda.

SEXTO.- En sesión celebrada el día 8 de octubre de 2012, el Consejo de Administración de Tolosa Lantzen, S.A. aprobó la solicitud de cesión formulada por las empresas Bidensabal 2006, S.L. y Geroegitekoborda, S.L. Dado lo cual, el nuevo contrato se formalizó el 9 de



formalizatu zen kontratu berria. Bertan erabaki zen kanona horrela finkatzea:

- 2012-2013 urtean: 45.000 euro gehi BEZa.
- 2013-2014 urtean: 50.000 euro gehi BEZa.
- 2014-2015 urtean: 54.851,76 euro gehi 2012ko ekainetik 2014ko ekainera bitartean KPlaren igoera zegokion BEZarekin.

octubre de 2012. Allí se decidió fijar el canon de la siguiente manera:

- Año 2012-2013: 45.000 euros más IVA.
- Año 2013-2014: 50.000 euros más IVA.
- Año 2014-2015: 54.851,76 euros más el incremento del IPC correspondiente entre junio de 2012 y junio de 2014 con el IVA correspondiente.

ZAZPIGARRENA.- 2020ko abenduaren 31n Tolosa Lantzen, S.A. sozietatea desegin zen eta Tolosako Udala subrogatu zen eskubide eta betebeharrak guztietan.

SÉPTIMO.- El 31 de diciembre de 2020 se procedió a la disolución de la sociedad Tolosa Lantzen, S.A. subrogándose el Ayuntamiento de Tolosa en todos sus derechos y obligaciones.

ZORTZIGARRENA.- 2022an, Geroegitekoborda, S.L. enpresaren ordezkariak ahoz adierazi zien udal ordezkariari kontratua eteteko asmoa zuela. Era berean, 2025ean hainbat idazki aurkeztu ditu Tolosako Udaleko erregistro orokorrean (5067 eta 6012), ordaintzeko dauden kanonen inguruan akordio batera iristeko bilerak eskatuz.

OCTAVO.- En el año 2022 el representante de la empresa Geroegitekoborda, S.L. manifestó verbalmente ante los representantes municipales su intención de rescindir el contrato. Asimismo, durante el año 2025 ha presentado diversos escritos en el registro general del Ayuntamiento de Tolosa (5067 y 6012) solicitando reuniones para llegar a un acuerdo sobre los cánones pendientes de abonar.

BEDERATZIGARRENA.- 2025eko uztailaren 9an, Geroegitekoborda, S.L. merkataritza sozietatearen idazki bat sartu zen Tolosako Udaleko erregistro orokorrean, 2025-9581 sarrera zenbakiarekin. Idazki horretan, kontratua Zaska Taberna, S.L. merkataritza sozietateari lagatzeko eskatzen zuen.

2.- Proposamenari memoria erantsi behar zaio justifikatzeko ekitaldian gastu hori egin behar dela eta lotura juridikoan ezarrita dagoen mailan krediturik ez dagoela edo dagoena ez dela nahikoa. 3.- Espezifikatzea zein baliabidek finantzatu behar duen proposatutako gastua eta aurrekontuko zein partida, behar bezala zehaztuta, handitu behar den. 4.- Kreditu gehigarriari buruzko espediente, aurrekontuen gaineko araudian eta aurrekontua gauzatzeko arau honetan xedatutako izapide guztiak bete ondoren, udalbatzari bidaliko zaio, onets dezan, non-eta ondoren jasotzen diren kasuak ez badira. 5.- Alkatearen eskumena da ondorengo baldintza hauek batera dituzten kreditu gehigarriak onesteko: a) Ez finantzatzea 21/2003 Arau Foralaren 34. artikulua aurreikusitako kreditu eragiketen bitartez. b) Urtean zehar eta metatzea aurrekontuaren hasierako kredituen %5 baino gehiagoko gehikuntza. Salbuespenezko kasu horretan ez dira aplikatuko kreditu gehigarri baten tramitazio arruntean eskatutako informazio, erreklamazio, publizitate eta baliabideei buruzko arauak. 6.- Hondamendi publikoak edo interes orokorreko antzeko ezbehar ohiz kanpokoak gertatzen direnean kreditu gehigarriak emateko helburua duten erabakiak berehalaxe betearazi ahal izango dira; nolanahi ere, erabaki horien aurka erreklamazioak egin litezke, baina prestazioaren hurrengo zortzi egunen barruan egin behar dira. Epe horren barruan errekurtsogileari ebazpenik jakinarazten ez bazaio ulertuko da ez direla onartu.	2.- A la propuesta se acompañará memoria justificativa de la necesidad de realizar el gasto en el ejercicio y de la inexistencia o insuficiencia de crédito en el nivel en que esté establecida la vinculación jurídica. 3.- Especificación del recurso que ha de financiar el gasto propuesto y de la partida presupuestaria, debidamente detallada, a incrementar. 4.- El expediente de crédito adicional, una vez cumplimentados todos los trámites establecidos en la normativa presupuestaria y en la presente Norma de Ejecución, pasará al Pleno de la Corporación para su aprobación siempre que no se trate de los supuestos recogidos a continuación. 5.- Se atribuye a la alcaldía la competencia para la aprobación de aquellos Créditos Adicionales que reúnan las siguientes condiciones: a) Que no se financien con operaciones de crédito contempladas en el artículo 34 de la Norma Foral 21/2003. b) Que acumulativamente al año no supongan un incremento superior al 5% de los créditos iniciales del Presupuesto Para este supuesto excepcional, no serán aplicables las normas de información, reclamaciones, publicidad y recursos exigidos en la tramitación ordinaria de un crédito adicional. 6.- Los acuerdos que tengan como objeto la concesión de créditos adicionales en caso de calamidades públicas o de naturaleza análoga de excepcional interés general, serán inmediatamente ejecutivos, sin perjuicio de las reclamaciones que contra los mismos se promovieran, las cuales deberán sustanciarse dentro de los ocho días siguientes a la prestación, entendiéndose desestimadas de no notificarse su resolución al recurrente dentro de dicho plazo.
--	--



II. TITULUA <u>AURREKONTUEN GAUZATZEA</u>	TÍTULO II <u>EJECUCIÓN DE LOS PRESUPUESTOS</u>
I. KAPITULUA - ARAU OROKORRAK	CAPÍTULO I - NORMAS GENERALES
<u>17. artikulua.- Printzipio orokorrak</u> 1.- Gastuaren onarpenak, kudeaketak eta likidazioak zehatz-mehatz doitu beharko dute indarreko Aurrekontuetan dauden kredituei. <u>18. artikulua.- Aplikazio eremua.</u> 1.- Hemengo arautegi hau udal zerbitzu eta departamentu guztiei aplikatuko zaie oro har, inolako salbuespenik egongo ez delarik.	<u>Artículo 17.- Principios generales</u> 1.- La aprobación, gestión y liquidación del gasto habrá de ajustarse estrictamente a la existencia de créditos en el Presupuesto vigente. <u>Artículo 18.- Ámbito de aplicación</u> 1.- La presente normativa se aplicará con carácter general en todos los servicios y departamentos municipales sin excepción alguna.
II. KAPITULUA- AURREKONTUEN KUDEAKETA	CAPÍTULO II – GESTIÓN PRESUPUESTARIA
<u>19. artikulua – Kreditu-atxikipena (KA)</u> 1.- Kreditu-atxikipena da egintza bat zeinaren bidez ziurtagiria emanda egiaztatu egiten den, aurrekontu-partida bati dagokiolarik, saldo nahikoa dagoela gastu bat edo kreditu-transferentzia bat zenbateko jakin batengatik baimentzeko, zenbateko beragatik gastu edo transferentzia horrentzako erreserba bat sortzen delarik.	<u>Artículo 19 – Retención de crédito (RC)</u> 1.- Retención de crédito es el acto mediante el cual se expide, respecto al de una partida presupuestaria, certificación de saldo suficiente para la autorización de un gasto o de una transferencia de crédito, por una cuantía determinada, produciéndose por el mismo importe una reserva para dicho gasto o transferencia.
<u>20. artikulua – Gastuaren gestioaren faseak</u> 1.- Udalaren Gastu-Aurrekontuaren gestioa honako fase hauetan egingo da: a) Gastua baimentzea. b) Gastuaren erabilpena c) Beharraren aitortzea. d) Ordaintzeko agindua. e) Ordaintzeko agindua. 2.- Kontabilitate dokumentuei gestio Ataletan emango zaie hasiera, eta ekintza hauek informatika bidez jasotzea egongo da,	<u>Artículo 20 - Fases en la gestión de gasto</u> 1.- La gestión del Presupuesto de Gastos del Ayuntamiento se realizará en las siguientes fases: a) Autorización del gasto. b) Disposición del gasto. c) Reconocimiento de la obligación. d) Ordenación del pago. e) Realización material del pago. 2.- Los documentos contables se iniciarán en las áreas gestoras, pudiendo recogerse informáticamente tales actos, si bien no se



nahiz eta kontabilitatean benetako ondoriorik izan ez harik eta Kontuhartzaitzaren berrespena jaso den arte.	producirán efectos contables ciertos en tanto no haya recaído la confirmación de Intervención.
3.- Administrazio prozedurak eta horiek onartzeko eskumena duten Organoak hurrengo kapituluan arautzen dira.	3.- Los procesos administrativos y órganos competentes para su aprobación se regulan en el Capítulo siguiente.
<u>21. artikulua - Gastuak baimentzea</u>	<u>Artículo 21 - Autorización de gastos</u>
1.- Baimentzea ekintza bat da eta beraren bidez onartzen da gastu bat egitea, gastuaren benetako kopuru edo gutxi gorabeherako kopuruarekin, horretarako aurrekontuetako kreditu oso bat edo zati bat gordetzen delarik.	1.- Autorización es el acto mediante el cual se acuerda la realización de un gasto, por la cuantía cierta o aproximada, reservando a tal fin la totalidad o parte de un crédito presupuestario.
2.- Gastuak baimendu eta xedatzeko, indarrean dagoen araudian ezarritakoa bete beharko da, hargatik eragotzi gabe alkatetzak eskumenak eskuordetzearen arloan emandako ebazpenetan gastuak baimentzeko ezarritakoa.	2.- La autorización y disposición de gastos se regirá por lo establecido en la normativa vigente, sin perjuicio del régimen de autorización de gastos establecido por resoluciones de alcaldía en materia de delegación de atribuciones.
3.- Gastuak baimentzeko espedientea martxan jarriko da dagokion departamentuko arduradunak edo teknikari batek proposatuta, gastu hori beharrezkoa dela justifikatzen duen memoria baten bidez. Gastua baimentzeko aurretik egin behar da, nahitaez, dagokion aurrekontuetako izendapena badagoela dion txostena, kontuhartzaitzak emana.	3.- El expediente de autorización de gastos se iniciará a propuesta del responsable de Departamento o técnico correspondiente, mediante memoria en la que se justifique la necesidad de dicho gasto. La autorización de gasto requerirá, previamente, el preceptivo informe de existencia de consignación presupuestaria, emitido por la intervención.
<u>22. artikulua - Gastuen erabilpena</u>	<u>Artículo 22 - Disposición de gastos</u>
1.- Erabilpena ekintza bat da eta beraren bidez onartzen da aurretik baimendutako gastuak, kopuru jakinak eta zehatzekoak, egitea.	1.- Disposición es el acto mediante el que se acuerda la realización de gastos, previamente autorizados, por un importe exactamente determinado.
2.- Gastuen erabilpena baimentzeko organoak aurreko atalean aipatutako berberak izango dira.	2.- Los órganos competentes para aprobar la disposición de gastos serán los mismos señalados en el artículo anterior.
3.- Baldin eta, gastuaren espediente abiatzen denean ezagutzen bada gastua agindu duenaren izena eta haren kopuru zehatza, baimentzeko eta erabiltzeko faseak bateratuko dira. Kasu horretan egin beharko da, orobat,	3.- Cuando, en el inicio del expediente de gasto, se conozca su cuantía exacta y el nombre del preceptor, se acumularán las fases de autorización y disposición. En este caso, se requerirá también, con



eta aldez aurretik, aurrekontuetako izendapena badagoela dioen txostena, kontuhartzailetzak emanda.	carácter previo, el preceptivo informe de existencia de consignación presupuestaria, emitido por la intervención.
23. artikulua – Beharraren aitortpena	Artículo 23 - Reconocimiento de la obligación
1.- Beharraren aitortpena ekintza bat da eta beraren bidez aitortzen da badagoela erakundearen aurka exijitu litekeen kreditu bat, baimendutako eta hitzartutako gastu batetik etorrira.	1.- Reconocimiento de la obligación es el acto mediante el cual se declara la existencia de un crédito exigible contra la entidad derivado de un gasto autorizado y comprometido.
2.- Aipatutako organoei dagokie legez hartutako gastu konpromisoetatik eratorritako obligazioak onartzea.	2.- Corresponderá a los órganos señalados en el artículo anterior el reconocimiento de las obligaciones derivadas de compromisos de gastos legalmente adquiridos.
Zinegotzi-delegatuari dagokio Alkatetzak edo Gobernu Batzordeak esleitutako kontratuen fakturak eta obra-ziurtagiriak onartzea, kontratuaren likidazioari dagokiona izan ezik, betiere alorrak sustatzen baditu.	Corresponderá al concejal delegado la aprobación de facturas y certificados de obra de contratos adjudicados por Alcaldía o Junta de Gobierno, a excepción del correspondiente a la liquidación del contrato, siempre que sean promovidos por el área.
3.- Baldin eta beharren aitortpena aurreko ekitaldietan gastu bat benetan egitearen beharrezko ondorioa bada, gastu horren konpromisoa baimendu gabe dagoelarik, haren onarpena Osoko Bilkuraren eskumena izango da.	3.- Cuando el reconocimiento de obligaciones sea consecuencia necesaria de la efectiva realización de un gasto de ejercicios anteriores, sin que se hubiera autorizado el compromiso del mismo, su aprobación corresponderá al Pleno.
4.- Baldin eta, gastuaren izaera dela eta, baimentzeko, erabiltzeko eta aitortzeko faseak aldi berekoak badira, horiek metatzea egongo da, "ADO" kontabilitate agiria tramitatuta.	4.- Cuando, por la naturaleza del gasto, sean simultáneas las fases de autorización, disposición y reconocimiento de la obligación, podrán acumularse, tramitándose el documento contable "ADO".
5.- Kontratistek jaulkitako fakturak Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira, eta, gutxienez, honako datu hauek eduki behar dituzte: - Udalaren identifikazio garbia (izena, IFZ) - Kontratistaren identifikazioa. - Faktura zenbakia. - Hornidura edo zerbitzuaren deskripzio nahikoa. - Enkargua zein zentro kudeatzailek egin zuen.	5.- Las facturas expedidas por los contratistas se presentarán en el Registro General del Ayuntamiento, debiendo contener, como mínimo, los siguientes datos: - Identificación clara del Ayuntamiento (nombre, NIF). - Identificación del contratista. - Número de la factura. - Descripción suficiente del suministro o servicio. - Centro gestor que efectuó el encargo.



- Gastu-txostenaren numeroa, esleipena egin zenean jakinarazi zena. - Fakturatutako diru-kopurua.	- Número del expediente de gasto, que fue comunicado en el momento de la adjudicación. - Importe facturado
6.- Kontuhartzailtzako Kontabilitate Gastuen unitatea izango da faktura eta egiaztagiri guztiak jasotzeko ardura duena, horretarako kontabilitatean erregistratuko dituelarik datu hauetan oinarrituta: proposamenaren zenbakia, kopurua eta Erregistro Orokorrean sartutako data. Behin erregistratuz gero, gastua kudeatzen duten zentro bakoitzari igorriko zaio Zerbitzuko buruak haiek adostea eduki dezan, area horretan ardura duen zinegotziaren oniritziz; ekintza horren ondorioz onartzen da zerbitzua edo hornidura egin dela kontratuaren baldintzekin bat etorrira eta bete dituztela onartuak izateko eskatutako baldintza guztiak: - Horniduraren edo zerbitzuaren hartze- eta adostasun-agiriak. - Agintzailearen izena, helbidea eta NANA edo IFZ. - Kopurua eta proposamena bat datozelako egiaztagiria.	6.- La unidad de Gastos de Contabilidad del Departamento de Intervención, será la encargada de recepcionar todas las facturas y certificaciones procediendo a su registro en contabilidad en base al número de propuesta, importe y fecha de entrada en el Registro General. Una vez registradas, se remitirán a cada centro gestor del gasto al objeto de que puedan ser conformadas por la jefatura del Servicio, con el visto bueno del concejal responsable del área, implicando dicho acto que el servicio o suministro se ha efectuado de acuerdo con las condiciones contractuales y que reúnen los requisitos exigidos para su aprobación: - Recibí y conforme de la recepción del suministro o servicio. - Nombre, dirección y DNI o CIF del preceptor. - Verificación del importe con la propuesta.
7.- Faktura horiek egin ondoren, Kontuhartzailtzara eramango dira fiskalizatu eta kontabilizatzeko, eta Ogasun eta Finantza Administrazioako zinegotzi delegatuak onets ditzakeen faktura guztien zerrenda egingo da. Zerrenda hori astean behin egingo da, normalean, eta alkateak zuzenean onesten ahalko du, egoki irizten dion kasuetan.	7.- Una vez conformadas dichas facturas, se trasladarán a Intervención a efectos de su fiscalización y contabilización, elaborándose relación de todas aquellas facturas que pueden ser elevadas a la aprobación del concejal delegado de Hacienda y Administración Financiera. Dicha relación se elaborará normalmente con una frecuencia semanal, pudiendo ser sometida directamente a la aprobación de la alcaldesa en los supuestos que la misma estime oportuno.
8.- Fakturen onarpena gauzatuko da zuzemenaren eta sinaduraren bitartez; zuzemen-sinadura horiek azalduko dira Kontuhartzailtzak egindako zerrendan.	8.- La aprobación de facturas se materializará mediante diligencia y firma que constarán en la relación elaborada por la intervención.
9.- Obra ziurtagiriei dagokienez, fakturak erantsi beharko zaizkie. Udal Zerbitzu Teknikoek bi dokumentuetan adostasuna agertu beharko dute, bai eta alorreko zinegotzi-delegatuaren oniritzia ere, salbu eta obra likidazioaren ziurtagirietan, non	9.- Respecto a las certificaciones de obra, será preciso adjuntar a las mismas las facturas, debiendo constar la conformidad por parte de los Servicios Técnicos municipales en ambos documentos, así como el visto bueno del concejal delegado



kontratazio organoari baitagokio adostasuna.	del área, salvo en las certificaciones de liquidación de obra, en las que la conformidad corresponderá al órgano de contratación.
24. artikulua. Beharraren aitorpenerako agiriak	Artículo 24 - Documentos para el reconocimiento de la obligación
1.- I. Kapituluako gastuetan, arau hauek beteko dira: a) Nominak O agiritzat hartuko dira b) Gizarte Segurantzako kuotak justifikatuta geratzen dira dagozkien likidazioen bitartez, zeinak O agiritzat hartuta geratuko dira.	1.- En los gastos del Capítulo I, se observarán estas reglas: a) Las nóminas tienen la consideración de documento O b) Las cuotas de la seguridad social quedan justificadas mediante las liquidaciones correspondientes que tendrán la consideración de documento O
2.- II. Kapituluako gastuetan, ondasun arrunt eta zerbitzuetan, faktura aurkezteko exijituko da oro har. Dieta- eta lokomozio-gastuak, behin gastua justifikatu eta dagokion saileko arduradunak oniritzia emanaz gero, dagozkion nominan txertatuko dira O agiria sortuko delarik.	2.- En los gastos del Capítulo II, en bienes corrientes y servicios, con carácter general se exigirá la presentación de factura. Los gastos de dietas y locomoción, una vez justificado el gasto y con el visto bueno del responsable del departamento correspondiente, se incluirán en la nómina correspondiente originándose el documento O.
3.- Finantza-gastuetan (3 eta 9 kapituluak) honako arau hauek edukiko dira kontuan: a) Bankuko konturen batean zordunketa bat sortzen duten interesen eta amortizazioaren ondoriozko gastuak justifikatu beharko dira Kontuhartzaitzaren adostasunarekin finantza koadroarekiko doikuntzari buruz. b) Modu berean jokatu da beste finantza gastuei dagokienean, nahiz eta justifikazioa osoago izango den eta O agiria lagundu beharko da formalizatutako agirien kopiaren bitartez, edo berandutze interesen likidazioaren bitartez.	3.- En los gastos financieros (Capítulos 3 y 9) se observarán estas reglas: a) Los gastos por intereses y amortización que originen un cargo directo en cuenta bancaria se habrán de justificar con la conformidad de Intervención respecto a su ajuste al cuadro financiero. b) Del mismo modo se procederá respecto a otros gastos financieros, si bien la justificación será mas completa y el documento O deberá soportarse con la copia de los documentos formalizados, o la liquidación de intereses de demora.
4.- Udalak kitatu beharreko transferentzietan, transferentzia arruntetan edo kapital transferentzietan, beharra onartzeko ezinbesteko eskakizuna da dirulaguntzak emateko araudian ezarritako baldintzak	4.- En las transferencias, corrientes o de capital, que el Ayuntamiento haya de satisfacer, es requisito necesario para el reconocimiento de la obligación el cumplimiento de las condiciones



betetzea, eta dirulaguntzaren helburua justifikatzea, araudi horrek esaten duen bezala. Behin eskakizun horiek betez gero, O agiria tramitatuko da. 5.- Inbertsio gastuetan, kontratistak faktura aurkeztu beharko du obra ziurtagiriaz lagunduta, hala dagokion kasuetan. Horrelakorik ez badago, fakturak bere baitan jaso beharko ditu, bereizita, benetan egindako hornidura edo zerbitzua, aurretik onartutako aurrekontuarekin bat badatorren ere.	establecidas en la normativa de concesión de subvenciones, y la justificación del destino de la subvención, en los términos en que se señala en dicha normativa. Cumplido estos requisitos, se tramitará documento "O" 5.- En los gastos de inversión, el contratista deberá presentar factura acompañada de certificación de obra en los casos que corresponda. Si ésta no procede, la factura deberá incluir de forma desglosada el suministro o servicio realmente realizado, aun cuando coincida con el presupuesto previamente aprobado.
25. artikulua. Ordaintzeko agindua 1. Ordaintzeko agindua da ekintza bat eta beraren bitartez ordainketen agintzaileak, onartutako eta likidatutako betebeharrak batean oinarrituta, behar den ordainketa egiteko agindua ematen du. 2. Udalaren ordainketak agintzea Ogasun eta Finantza Administraziooko zinegotzi-delegatuaren eskumena da. 3. Ordaintzeko agindua egingo da, oro har, Diruzaintzak landutako ordaintzeko aginduen zerrendetan oinarriturik, bat etorritik fondoan erabilerarako planarekin eta zorra ordaintzeko gastuen beharrezko lehentasunarekin, eta, jarraian, langile gastuekin eta aurreko ekitaldietan hartutako betebeharrekin. 4. Baldin eta ordainketaren izaerak edo premiak hala eskatzen badu, banaka egin daiteke ordaintzeko agindua. III. KAPITULUA – PROZEDURA ADMINISTRATIBOA	Artículo 25 - Ordenación del pago 1.- Ordenación de pago es el acto mediante el cual el ordenador de pagos, en base a una obligación reconocida y liquidada, expide la correspondiente orden de pago. 2.- La ordenación de pagos del Ayuntamiento es competencia del concejal delegado del área de Hacienda y Administración Financiera. 3.- La ordenación de pagos, con carácter general, se efectuará en base a relaciones de órdenes de pago que elaborará la Tesorería, de conformidad con el plan de disposición de fondos y la necesaria prioridad de los gastos para el pago de la deuda, seguido de los gastos de personal y obligaciones contraídas en ejercicios anteriores. 4.- Si la naturaleza o urgencia del pago lo requiere, la ordenación del mismo puede efectuarse individualmente. CAPÍTULO III - PROCEDIMIENTO ADMINISTRATIVO
26. artikulua– gastuak baimentzea ("A" agiria) 1.- Kontratazio espediente baten xede izan behar duten gastu guztiak eta	Artículo 26 – Autorización de gastos (Documento "A") 1.- Estarán sometidos a la preceptiva autorización todos aquellos gastos que



norgehiagokako araubideko dirulaguntzak emateko beharrezkoak diren baimen guztiak beharko dira. Espedientearen hasieran "A" agiria tramitatuko da; espediente horrek izango du proiektuaren kostu bera edo udal zerbitzuek egindako aurrekontuko diru kopuru bera.	han de ser objeto de un expediente de contratación y la concesión de subvenciones en régimen de concurrencia. Se tramitará al inicio del expediente documento "A", por importe igual al coste del proyecto o presupuesto elaborado por los servicios municipales.
2.- Jakindakoan adjudikazioduna zein den (edo adjudikaziodunak dirulaguntzen kasuan) eta gastuaren kopuru zehatza, "D" agiria tramitatuko da.	2.- Conocido el adjudicatario (o adjudicatarios en el caso de la subvenciones) y el importe exacto del gasto, se tramitará documento "D".
3.- Ondoren, eta obra-gauzatzea, zerbitzu- edo hornidura-ematea, eta, hala dagokionean, dirulaguntzaren helburuaren justifikazioa benetan egiten den heinean, dagozkion "O" agiriak tramitatuko dira.	3.- Sucesivamente, y en la medida en que efectivamente tenga lugar la realización de la obra, la prestación del servicio o suministro, y, en su caso, la justificación del destino de la subvención, se tramitarán los correspondientes documentos "O".
4.- Talde honetakoak dira ondoren zehazten diren gastu hauek: - Inbertsio obrak egitea. - Ibilgetua eskuratzea. - Mantentze gastuak. - Inbentariagarri ez diren zenbait material desberdin eskuratzea: bulegoko materiala, jantziak, garbiketarako materiala, obretarako, lorategikoa, trafiko seinaleak... - Aseguruak - Zerbitzuak eskaintzeko kontratuak. - Beste batzuk, baldin eta beren izaera dela-eta baimentzeko eta erabiltzeko ekintzen arteko banaketa gomendagarria bada.	4.- Pertenezen a este grupo los gastos que se detallan a continuación: - Realización de obras de inversión - Adquisición de inmovilizado - Gastos de mantenimiento - Adquisición de diverso material no inventariable: material de oficina, vestuario, material de limpieza, de obras, de jardinería, señales de tráfico ... - Seguros - Contratos de prestación de servicios - Otros, cuya naturaleza aconseja la separación entre los actos de autorización y disposición.
<u>27. artikulua – Baimentzea-Erabiltzea ("AD" agiria)</u>	<u>Artículo 27 – Autorización-Disposición (Documento "AD")</u>
1.- Zenbait kasutan, hala xedatzen denean, alegia, gastuen aurrekontuaren kudeatzeko administrazio ekintza berak gastuaren exekuzioaren fase bat baino gehiago har ditzake bere baitan. Horrela bi ustezko egoera hauek gerta litezke: - Baimentzea eta erabiltzea ("AD")	1.- En determinados casos en que así se establezca, un mismo acto administrativo de gestión del presupuesto de gastos puede abarcar más de una fase de ejecución del gasto. De esta forma pueden darse estos dos supuestos: - Autorización y disposición ("AD")



- Baimentzea, erabiltzea eta beharra aintzestea ("ADO")	- Autorización, disposición y reconocimiento de la obligación ("ADO")
2.- Gastuak baimentzeko eta xedatzeko faseak metatuko dira, eta nahitaezko baimena beharko da kontratu txikien xede diren eskuratze, zerbitzu eta obretan, indarrean dauden kontratuetan, urte anitzeko gastuetan (konprometitutako urteko zenbatekoan), lehia-araubidea aplikatu behar ez zaien entitateentzako transferentzietan eta dirulaguntza izendunetan.	2.- Se acumularán las fases de autorización y disposición de gastos, y se requerirá la preceptiva autorización, en las adquisiciones, servicios y obras objeto de contratos menores, en los contratos en vigor, en los gastos plurianuales (por el importe de la anualidad comprometida), en las transferencias a entidades a las que no sea de aplicación el régimen de concurrencia y en las subvenciones nominativas.
3.- Espedientearen hasierak ekarriko du AD agiria tramitatzea ekitaldi horri egotzi dakioken proposatutako gastuaren kopuruagatik.	3.- El inicio del expediente originará la tramitación de documento AD por el importe del gasto propuesto imputable al ejercicio.
4.- "O" agiriak tramitatuko dira baldin eta benetan gauzatu bada obraren exekuzioa, zerbitzuaren prestazioa edo ondasunaren erosketa. Nahikoa izango da, kasuaren arabera, fakturak aurkeztea, dirulaguntzaren helmuga justifikatzea, edo bankuko kontu batean zordunketa egitea.	4.- Los documentos "O" se tramitarán cuando sea efectiva la realización de la obra, la prestación del servicio o la adquisición del bien. Según los casos será suficiente la presentación de facturas, la justificación del destino de la subvención, o el cargo efectuado en cuenta bancaria.
5.- Talde honetakoak dira honako gastu hauek: - Inbertsio obrak egitea. - Ibilgetua erostea. - Alokatzekak. - Mantentze gastuak. - Inbentariagarri ez den materiala erostea. - Batzordeen jarduerak. - Zerbitzuak eskaintzeko kontratuak. - Formakuntza ikastaroetara, jarduna, mintegietara... joatea. - Hitzartutako maileguten interesak. - Hitzartutako maileguten amortizazio kuotak. - Aktibo finantzarioak eskuratzea. - Beste batzuk, baldin eta beren izaera dela-eta baimentzeko eta erabiltzeko ekintzen arteko banaketa gomendagarria bada.	5.- Pertenecen a este grupo los siguientes gastos: - Realización de obras de inversión - Adquisición de inmovilizado - Arrendamientos - Gastos de mantenimiento - Adquisición de material no inventariable - Actividades de las comisiones. - Contratos de prestación de servicios - Asistencia a cursos de formación, jornadas, seminarios ... - Intereses de préstamos concertados - Cuotas de amortización de préstamos concertados - Adquisición de activos financieros - Otros, cuya naturaleza aconseja la separación entre los actos de autorización y disposición.

**28. artikulua - Baimentzea-Erabilpena-Beharra ("ADO" agiria)**

- 1.- Aldez aurreko baimenik behar ez den kasuetan, aurrekontua betearazteko faseak metatu ahal izateko, ezinbesteko baldintza izango da erabakia hartzen duen organoak ebazpen horietan sartzen diren fase guztiak erabakitze eskumen originala edo delegatua izatea.

29. artikulua.- Kontratazioen urteko plana

9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuenak, 28.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, sektore publikoko erakundeek, aurrekontu-ekitaldi batean edo hainbat urtetakoetan, kontratazioaren arloan garatuko duten jardura programatuko dute. Beren kontratazio plana aldez aurretik ezagutaraziko dute, iragarki informatzaile baten bidez. Iragarki horretan, araubide harmonizatuaren mende egongo diren kontratuen berri emango du.

29.bis artikulua – Kontratu txikien funtzionamendua

- 1.- Kontratu txikitzat joko dira 40.000 eurotik beherako balio zenbatetsia duten kontratuak, obra-kontratuak direnean, edo 15.000 eurotik beherakoak, hornidura- edo zerbitzu-kontratuak direnean.
- 2.- Kontratu horiek ezingo dute urtebete baino gehiago iraun, ez eta luzatu edo aldatu ere. Era berean, ezin izango dira erabili urtero errepikatzen diren prestazio errepikatuak ordaintzeko.
- 3.- Kontratu txikietan, espedienteak izapidetzeko, kontratazio-organismoak txosten bat egin beharko du, kontratuaren beharra modu arrazoituari justifikatuz, eta kontratuaren xedea ez dela aldatzen ari, lehenengo paragrafoan deskribatutako atalaseak aplikatzea saihesteko. Kontratista bati kontratu txiki berri bat esleitzeak kontratu txikirako ezarritako mugak gainditzen baditu, aurretik esleitutako kontratuaren edo kontratu txikien ondorioz, kontratu berria esleitu aurretik kontratazio-unitatearen

Artículo 28 - Autorización-Disposición-Obligación (Documento "ADO")

- 1.- En los casos en que no se necesite autorización previa, para que proceda la acumulación de las distintas fases de ejecución presupuestaria será requisito imprescindible que el órgano que adopte la decisión tenga competencia originaria o delegada para acordar todas y cada una de las fases que en las resoluciones se incluyan.

Artículo 29- Plan anual de contratación.

Según lo dispuesto en el artículo 28.4. de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público las entidades del sector público programarán la actividad de contratación pública, que desarrollarán en un ejercicio presupuestario o períodos plurianuales y darán a conocer su plan de contratación anticipadamente mediante un anuncio de información previa previsto que al menos recoja aquellos contratos que quedarán sujetos a una regulación armonizada.

Artículo 29 bis – Funcionamiento en materia de contratos menores

- 1.- Se consideran contratos menores los contratos de valor estimado inferior a 40.000 euros, cuando se trate de contratos de obras, o a 15.000 euros, cuando se trate de contratos de suministro o de servicios.
- 2.- Estos contratos no podrán tener una duración superior a un año ni ser objeto de prórroga ni modificación alguna. Tampoco podrán ser utilizados para satisfacer prestaciones recurrentes, repetidas a lo largo de anualidades.
- 3.- En los contratos menores la tramitación del expediente exigirá la emisión de un informe del órgano de contratación justificando de manera motivada la necesidad del contrato y que no se está alterando su objeto con el fin de evitar la aplicación de los umbrales descritos en el apartado primero. En el caso de que la adjudicación de un nuevo contrato menor en favor de un contratista supere los umbrales establecidos para el contrato menor,



aldeko txostena beharko da, objektua aldatzen ari ez dela eta muga horiek aldatzen ari ez direla justifikatzeko, publizitatea, gardentasuna eta lehia saihesteko. Horretarako, kontratua sustatzen duen arloko arduradunak justifikazio-txostena bidali beharko dio Kontratazio Unitateari, kontratistari esleitutako kontratu txikiak eta kontratu berriaren xedea eta bete nahi den premia zehaztuz.

4.- Era berean, gastua onartzea eta dagokion faktura sartzea eskatuko da. Faktura horrek indarrean dagoen araudiak ezarritako baldintzak bete beharko ditu.

5.- Obra-kontratu txikian, gainera, obren aurrekontua gehitu beharko da, hargatik eragotzi gabe kasuan kasuko proiektua egotea, indarrean dauden xedapenek hala eskatzen dutenean. Era berean, dagokion txostena eskatu beharko zaio bulego teknikoari, lanak obraren egonkortasunari, segurtasunari edo estankotasunari eragiten dionean.

6.- Artikulu honen 3. paragrafoan xedatutakoa ez da aplikatuko ordainketa txikiak egiteko kutxa finkoko aurrerakinen sistemaren edo antzekoren baten bidez ordaintzen diren kontratuetan, betiere kontratuaren balio zenbatetsia 5.000 eurotik gorakoa ez bada.

7.- Kontratu txikiak hiru hilean behin argitaratuko dira, sektore publikoko kontratuei buruzko legerian ezarritako moduan eta baldintzetan.

8.- Gastu arruntetarako edo inbertsioetarako 8.000,00 euro (BEZik gabe) gainditzen dituen kontratu txiki bat egiteko, espedientea tramitatzear gain, aurreko artikuluetan ezarritakoari jarraiki, eskatuko da gutxienez 3 aurrekontu eskatzea. Orokorrean, kontratu txikien prozeduretan, prezioa izango da balorazio-irizpide bakarra. Baldin eta pentsatzen bada teknikoki egokia dela prezioa ez beste irizpide batzuk baloratzea, orduan, puntu hori jaso beharko da espedientearen.

Eskaintza-eskaera indibidualizatuaren alternatiba

como consecuencia del contrato o contratos menores adjudicados con anterioridad, previamente a la adjudicación del nuevo contrato será preceptivo el informe favorable de la unidad de contratación, para justificar que no se está alterando el objeto, ni se están alterando dichos límites para evitar la publicidad, la transparencia y la concurrencia. Para ello, el responsable del área promotora del contrato deberá remitir a la Unidad de Contratación informe justificativo, detallando el o los contratos menores adjudicados al contratista, y precisando el objeto del nuevo contrato, y la necesidad que pretende cubrirse.

4.- Asimismo se requerirá la aprobación del gasto y la incorporación al mismo de la factura correspondiente, que deberá reunir los requisitos que establezca la normativa vigente.

5.- En el contrato menor de obras, deberá añadirse, además, el presupuesto de las obras, sin perjuicio de que deba existir el correspondiente proyecto cuando sea requerido por las disposiciones vigentes. Deberá igualmente solicitarse el informe correspondiente de la oficina técnica cuando el trabajo afecte a la estabilidad, seguridad o estanqueidad de la obra.

6.- Lo dispuesto en el apartado 3 de este artículo no será de aplicación en aquellos contratos cuyo pago se verifique a través del sistema de anticipos de caja fija u otro similar para realizar pagos menores, siempre y cuando el valor estimado del contrato no exceda de 5.000 euros.

7.- Los contratos menores se publicarán trimestralmente, en la forma y con los requisitos establecidos en la legislación sobre contratos del sector público.

8.- Para la realización de un contrato menor para gasto corriente o de inversión que supere los 8.000,00 euros (sin IVA), además de la tramitación del expediente conforme a lo establecido en los artículos anteriores se exigirá la solicitud de al menos 3 presupuestos. Con carácter general, el único criterio de valoración en los procedimientos de contratación menor será el precio. En el caso de que técnicamente se considere oportuna la valoración de criterios diferentes al precio, deberá hacerse constar dicho extremo en el expediente.

Como alternativa a la petición individualizada de



gisa, eskaintzak modu irekian eskatu ahal izango dira, kontratatzailearen profilean argitaratuz, eta 15 egun naturaleko epea ezarriz. Salbuespenez, eta dagokion txostenarekin behar bezala justifikatu ondoren, enpresa gaitu bakar bati kontsulta egin ahal izango zaio, ondorengo zirkunstantzia hauetakoren bat gertatzen denean: • Arrazoi teknikoengatik (patenteak, garapen informatiko propioak) edo arrazoi artistikoengatik. • Kontratuaren xede den zerbitzua aldi batean betetzeko beharra dagoenean, harik eta zerbitzuaren kudeaketa moduaren prozedura ireki/sinplifikatu /supersinplifikatu/mugatu/negoziatu bat esleitu arte, beti ere dagokion espediente hasi bada. 9.- Gastu txikitat joko dira, prezio zehatza aurrez jakin daitekeen kasuetan, 300,00 euro baino gutxiagoko balio zenbatetsia duten obra, zerbitzu eta hornidura kontratuak. Hauetan, beharrezkoa izango da eskaria tramitatzea, baina ez da aurrekonturik erantsi beharko. 10.- 300,01 eta 8.000 euro bitarteko balio zenbatetsiko kontratuetan, oro har, ez da administrazio-espedientea ireki beharrik. Nahikoa izango da aurrekontu bakarra eskatzearekin, ondorengo kasuetan izan ezik: a) Obra kontratuen kasuan, indarrean dauden xedapenek hala eskatzen dutenean, dagokion proiektua atxikitu beharko da. Eta obra proiektuen idazlan, plangintza- araudi proposamen-, edo mota intelektualeko dokumentuen idazlanetan proposamen teknikoa eta kontratua exekutzeko baldintza guztiak jasotzen dituen ebazpena nahitaezkoak izango dira. b) Hornidura edo zerbitzu kontratu txikietan, kontratu horiek ezaugarri eta baldintza bereziak dituztenean, hauek dekretu batean jaso beharko dira, ondoren kontratistari jakinarazteko.	ofertas, éstas podrán solicitarse de manera abierta a través de su publicación en el perfil del contratante, estableciendo un plazo de 15 días naturales Excepcionalmente, y previa justificación documental a través del correspondiente informe podrá consultarse a una única empresa capacitada cuando concurren alguna de las circunstancias siguientes: • Por razones técnicas, como patentes, desarrollos informáticos propios o razones artísticas • Cuando se trate de cubrir temporalmente la necesidad de cobertura del servicio objeto del contrato hasta la adjudicación de un procedimiento abierto/ simplificado/ supersimplificado/restringido/negoziado o modificación de la forma de gestión del servicio, siempre y cuando se haya iniciado el correspondiente expediente. 9.- Se consideran gastos menores los contratos de obras, servicios y suministros cuyo valor estimado sea inferior a 300,00 euros, cuando se pueda conocer con antelación el precio exacto. En estos casos, será necesaria la tramitación de la solicitud, pero no adjuntar el presupuesto. 10.- En los contratos cuyo valor estimado esté comprendido entre 300,01 y 8.000 euros, con carácter general, no será necesaria la tramitación de expediente administrativo. Bastará con solicitar un presupuesto, salvo en los siguientes casos: a) En el caso de contratos de obras, cuando así lo exijan las disposiciones vigentes, se deberá adjuntar el correspondiente proyecto. Y en los trabajos de redacción de proyectos de obra, propuesta de normativa de planificación, o de documentos de tipo intelectual, será obligatoria la propuesta técnica y la resolución que contenga todas las condiciones de ejecución del contrato. b) En los contratos menores de suministro o de servicios, cuando tengan características y condiciones especiales, éstas deberán recogerse en un decreto para su posterior notificación al contratista.
--	--



<u>30. artikulua – Ekarpenen eta dirulaguntzen tramitazioa</u>	<u>Artículo 30 - Tramitación de aportaciones y subvenciones</u>
1.- Udalak ematen dituen dirulaguntza arruntak eta kapitalarenak egokituko dira Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Autonomoen Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrek xedatutakora. Arautegi horrekin bat etorrita, dirulaguntzak emango dira, oro har, lehia edo konkurrentzia prozeduran, eta, salbuespen gisa, zuzeneko emakidaz edo hitzarmenez. 2.- Dirulaguntzak emateko organo eskuduna da bere eskumenen mugen barruan gastuak erabiltzeko gaitasuna duena, tokiko erregimenaren gaineko legeriaren arabera. 3.- Dirulaguntzen tramitazioa egingo da, oro har, honako prozedura honen arabera: a) Berariazko oinarri arautzailea egin eta organo eskudunak onartu. b) Gastu espedienteak onartu: kreditua badagoelako ziurtagiria ematea eta organo eskudunak deialdia onartzea. c) Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratu. d) Eskabideak ebaluatu. e) Dirulaguntza ematea erabaki. Dirulaguntza izendunetan ez da ezinbestekoa izango hitzarmena egitea honako kasu hauetan: dirulaguntzaren xedearen zirkunstantzia berezien ondorioz hala irizten denean (dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrean adierazten den moduan), eta dirulaguntzaren zenbatekoa 5.000 eurokoa edo txikiagoa denean. 4.- Gastu espedienteak onartzeak "A" agiri bat sortzea ekarriko du, laguntza ematea erabakitzeak, berriz, "D" agiri bat. 5.- Beste erakundeetara egindako ekarpenei edo transferentziei dagokienean, baldin	1.- Las subvenciones corrientes y de capital que concede el Ayuntamiento, se ajustarán a lo establecido por la Ordenanza General Reguladora de Subvenciones del Ayuntamiento de Tolosa y de sus Organismos Públicos. De conformidad con dicha normativa, las subvenciones se concederán, con carácter general, en régimen de concurrencia, y excepcionalmente, en régimen de concesión directa o convenio. 2.- El órgano competente para el otorgamiento de subvenciones es el que tenga atribuida la capacidad de disposición de gastos dentro de los límites de sus atribuciones, de conformidad con la legislación de régimen local. 3.- La tramitación de las subvenciones, en general, se realizará de acuerdo al siguiente proceso: a) Elaboración de las bases reguladoras, aprobándose por el órgano competente. b) Aprobación del expediente de gasto: certificado de existencia de crédito y aprobación de la convocatoria por el órgano competente. c) Publicación en el BDNS. d) Evaluación de solicitudes. e) Acuerdo de concesión En las subvenciones nominativas, la figura del convenio podrá ser prescindible en los siguientes casos: cuando así se considere por las especiales circunstancias del objeto de la subvención (como se señala en la Ordenanza General de Subvenciones) y cuando el importe de la subvención sea igual o inferior a 5.000 euros. 4.- La aprobación del expediente de gasto originará un documento "A", mientras que el acuerdo de concesión un documento "D". 5.- En el caso de aportaciones o transferencias a otras entidades a las que



lehia edo konkurrentzia prozedura ezin aplikatu badaiteke, kopurua jakiten denean "AD" agiria tramitatuko da. Beste erakundeei derrigor egin beharreko ekarpenaren kopurua ez bada ezaguna, kreditu atxikipena eskatuko da ustezko kopuruarengatik.	no sea de aplicación el régimen de concurrencia, cuando se conozca el importe se tramitará documento AD. Si el importe de la aportación obligatoria a otras entidades no fuera conocido, se instará la retención de crédito por la cuantía estimada.
6.- Edozein motatako dirulaguntza emateko beharrezkoa izango da espediente bat eratzea; espediente horretan jaso beharko da norako diren fondoak eta zein baldintza bete behar diren ordainketa egin ahal izateko; jaso beharko da, orobat, jasotako diru kopurua zein arrazoiengatik beharko litzatekeen atzera itzuli.	6.- La concesión de cualquier tipo de subvenciones requerirá la formación de expediente en el que conste el destino de los fondos y los requisitos necesarios que se han de cumplir para que pueda procederse al pago, así como las causas que motivarían la obligación de reintegrar el importe percibido.
7.- Dirulaguntza ordaintzeko agindua eman ahal izateko ezinbestekoa da behar den departamentuak egiaztatzea bete direla hura emateko erabakian exijitutako baldintzak eta, gainera, jatorrizko agirien bitartez justifikatuta. Baldintza horiek, beren izaera dela eta, fondoak eskuratu ondoren bete behar badira, behar den zerbitzuak zehaztu beharko du, nolanahi ere, baldintzok zein epetan bete beharko diren.	7.- Para que pueda expedirse la orden de pago de la subvención es imprescindible que el departamento correspondiente acredite que se han cumplido las condiciones exigidas en el acuerdo de concesión y la justificación con documentos originales. Si tales condiciones, por su propia naturaleza, deben cumplirse con posterioridad a la percepción de fondos, el servicio que corresponda detallará cuál es el período de tiempo en que, en todo caso, aquellas se deberán cumplir.
8.- Azken kasu horretan, Kontuhartzaitzak erregistroan jasoko du justifikatzeke gelditzen diren fondoan egoera hau, fondo horien jarraipena egiteko eta egoki diren neurriak proposatzeko. Dirulaguntzak emateagatik ezin inongo ordainketarik egin ahal izango da baldin eta 6. puntuari aipatzen den denboraldia igaro bada fondoan aplikazioa justifikatu gabe.	8.- En el último supuesto, la Intervención registrará esta situación de fondos pendientes de justificación, a fin de efectuar su seguimiento y proponer las medidas procedentes. No será posible efectuar pago alguno por concesión de subvenciones cuando hubiera transcurrido el período referido en el punto 6, sin que se haya justificado la aplicación de fondos.
9.- Oro har, jasotako fondoan aplikazioa justifikatzeko, kontuan hartuko dira dirulaguntzak emateko onartu den arautegiaren eskakizunak eta, horretaz gainera, honako hau: a) Dirulaguntzaren helburua obra bat edo instalazio bat egitea denean, beharrezkoa izango da	9.- Con carácter general, para justificar la aplicación de los fondos recibidos, se tendrá en cuenta los requerimientos de la normativa aprobada para la concesión de subvenciones y además se tendrá en cuenta: a) Cuando el destino de la subvención es la realización de obra o instalación, será preciso



Udal Zerbitzuetako teknikari batek, bertara joanda, egindako obra zein egoeratan dagoen dion akta egitea. b) Baldin eta dirulaguntzaren helburua material suntsikorra erostea bada, zerbitzuak ematea edo izaera berdintsuko besteren bat, beharrezkoa izango da ekartzea ordainketa egin dela frogatzen duten jatorrizko dokumentuak.	que un técnico de los Servicios Municipales se persone en el lugar y extienda acta del estado en que se haya la obra ejecutada. b) Cuando el destino es la adquisición de material fungible, la prestación de servicios u otro de similar naturaleza, se requerirá la aportación de documentos originales acreditativos del pago realizado.
10.- Edozein dirulaguntzaren jasotzaileak frogatu beharko du ez diola ezer zor Udal Ogasunari, eta hori ofizioz egiaztatuko da. Era berean, frogatu beharko du egunean dagoela zerga betebeharrei eta Gizarte Segurantzari dagokienean, eta baimendu ahal izango zaio Udal Ogasunari zuzenean egiaztatzea hori hala dela.	10.- Quien perciba cualquier subvención deberá acreditar que no es deudor/a de la Hacienda Municipal, extremo que se comprobará de oficio. Asimismo, deberá acreditar estar al corriente de sus obligaciones tributarias y de la Seguridad Social pudiendo autorizarse a la Hacienda Municipal a que compruebe directamente dichos extremos.
11.- Baldin eta onuraduna epea bukatu zaion zor likido eta galdagarri baten zorduna bada, Udalak konpentsazioa adostuko du.	11.- Cuando el beneficiario sea deudor con motivo de una deuda vencida, líquida y exigible, el Ayuntamiento deberá acordar la compensación.
31. artikulua – Inbertsio gastuak	Artículo 31 - Gastos de inversión
1.- Lehen ezarrerako gastuak baimentzeko, baita handitzeko eta hobetzekoak ere, legedira egokitzen ote diren jakiteko beharrezko azterlanen emaitza jakin behar da aurretik.	1.- La autorización de gastos de primer establecimiento, y los de ampliación y mejora, se condicionan al resultado previo de los correspondientes estudios de adecuación a la legalidad.
2.- Dena dela, espedienteen honako dokumentazio hau sartu beharko da beti: a) Proiektua, planoak eta memoria. b) Aurrekontua, kostu osoa jasoko duelarik. Baldin eta urbanizatzeko obrarik beharko balitz, obra horien kostua ebaluatu beharko da. c) Baldintza-agiria. d) Amortizazioa, zenbatetsitako bizitza baliagarria arazoituta. e) Datozen ekitaldietako funtzionamendu eta kontserbazioeko gastuen zenbatespena; Kontuhartzaitzak emango du kopuru horien berri adieraziz horiek estaltzeko	2.- En el expediente deberá incorporarse, en todo caso, la siguiente documentación: a) Proyecto, planos y memoria. b) Presupuesto, que contendrá la totalidad del coste. Si se precisara de la ejecución de obras de urbanización, se evaluará el coste de las mismas. c) Pliego de condiciones. d) Amortización, razonando la vida útil estimada. e) Estimación de los gastos de funcionamiento y conservación en ejercicios futuros, cuantías que serán informadas por Intervención en cuanto a la posibilidad de



zein aukera dagoen hurrengo urtetan. f) Aurrekontuak aplikatzeko proposamena. g) Baldin eta jardunbideak berekin badakartza inbertsio konpromisoak datozen urteetarako, egon beharko du Kontuhartzaitzak emandako aldeko txostena.	cobertura en los años sucesivos. f) Propuesta de aplicación presupuestaria. g) En caso de que la actuación comporte compromisos de inversión para ejercicios futuros, deberá constar informe favorable de Intervención.
